

uk

187. zenbakia / 2010eko abenduaren 20a



Bazen behin... bizitza

Mahai-jolasa

2.200 galdera giza gorputzari buruz

Aztetu "Bazen behin... giza gorputza" izeneko telesail ospetsuko Maisua eta pertsonaiak, eta jabetu giza gorputzaren sekretu guztiez.

Mundu mailako jolas ospetsua orain euskaraz!

Ludi toys

39€ ARGIAREN HARPIDUEMENTZAT 35€

MIHILUZE

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko BERRITUA

Telebistako programa arrakastatsuen edizio berria!

35€ ARGIAREN HARPIDUEMENTZAT 32€

argia

ESKAERAK




www.argia.com | denda@argia.com | ☎ 943 37 15 45



www.luditoys.com | info@luditoys.com | ☎ 943 36 86 61

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 1. bulegoa 48992 GETXO
 e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bitor Egurrola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepon Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
 AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. ALBE Gala.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Aingeruaren Etorbidea, Getxo.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Laura Lapeyra.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Ander Deuna Barrika eta Sopelan.
- 28. ARGAZKIA. Lantegi barria Erandion.
- 30. BERBETAN. Josune Muñoz.
- 34. FOTOGRAFIA. Mikel Martinez.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Leioako Film Laburren Lehiaketa.
- 43. MUSIKA. Badaukat taldea.
- 44. LIBURUAK. Itzulpen lanak.
- 45. KIROLAK. Makila joko (II).
- 46. ELKARRIZKETA. Jesus Sustatza eta Luis Gomez.

AMAITZEKO

- 49. NORA JOAN. UK taberna.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Getxoztar esne-saltzaileak, 1941.
- 54. AITORMENAK. Iban Garate.

Azala: Mikel Martinez

www.ukaldizkaria.biz



30 Josune Muñoz

Berbetan

Literatura zale eta feminista, emakume literaturaren aditu eta erakusle da Skolastikako sortzailea.



11 Laura Lapeyra



54 Iban Garate

www.renaultleioa.com

Leioa Berri Auto

HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE

www.renaultleioa.com

Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Okerrak

Ziria sartu nahi digute izkina guzti-etatik. Kriariaren aurkako neurriak "erremedio tekniko hutsak" direla sinestaz nahi digute, eta gainera, erreskaterik heltzen ez zaigun bitartean erreformak begi onez hartu behar ditugula. Errezeta neoliberal hauek ez dira berriak. Ezta berria ere, erabaki hauen izaera politikoa ukatzeko enpeinua. Ziria sartu nahi digute globalizazioaren izenean, erabaki guztiak gure eskuetatik at daudela esaten dutenean. Badira erabaki guztiak gugandik gertu, eta hauek ere erantzule dira hein handi batean. Eta hau gutxi ez bada, krisitik atera ahal izateko gizarteko sektorerik ahulenak zigortzen eta kriminalizatzen ari dira, gaitz guztien errudunak, langabetuak, laguntza sozialak jasotzen dituztenak, erretiratuak edota etorkinak direla aditzera emanez. Eusko Jauriaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako kontseilariak ere argi utzi du, berriki, noren atzetik joango diren: laguntza sozialak jasotzen dituzten pertsonen espedienteak aztertuko dituzte, zorrotz, eta formazio edo enpleguren bati uko egiten dietenei, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta erretiratuak zaie. Okerrak. Okerrak, akerraren adarrak bezala. Akerrak adarrak okerrak ditu, adarrak okerrak ditu akerrak...

Iritzia

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakundeko lagunek, Gabonetako erosketak egiteko zenbait gomendio luzatu dizkigute. Hona hemen!

Gabonetan ere, kontsumo arduratsua

Duela bi urte luze gainera etorri ziztaigun eta oraindik gurean dirauen krisiaren ondorioak larriak dira: enpresa eta saltoki asko itxi dute, langabezia hazi egin da, lan baldintzen gaiztotzea, zerbitzu publikoe-

«Hartzaileari oparia jaiak igarota jasotzeak axola ez badio, urtarrileko merkealdian erosi» tan murrizketak, inoiz baino etxebizitza utzarazpen gehiago hipoteka ez ordaintzeagatik... Txineraz "krisi" hitza bi karakterre-

kin idazten da. Lehenak arriskua adierazten du; bigarrenak, aukera. Krisi honen "arriskuak" begibistakoak dira.

Eta "aukerak"? Ba al dira? Gure ustez, bai. Halaberharrez izan bada ere, kontsumo arduratsua baten seinale argiak ageri eta finkatzen ari direla dirudi: aurreikuspena, neurribidea, razionaltasuna... Hori liteke sasoi ilun honek eskaini digun "aukera": benetan beharrezkoak eta probetxagarriak zaizkigun gastuak eta baztergarriak direnak

berriro (edo lehenbiziz) pentsatzeko eta aldentzeko parada; gure diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea egiteko abagunea; gure kontsumo mota eta mailari buruzko hausnarketa egiteko unea; 'bizitza maila' kontzeptua ere birpentsatzeko oportunitatea.

2008ko Gabonetan kementsu azaldu ziren kontsumo ohitura aldaketa hauek. Urtarrileko aldapa abenduan ez hasteko urtero EKA-k eman ohi dituen aholkuen betetzea inoiz baino handiagoa izan zen. Eta ez Gabonetan soilik. Hala izan zen 2009an eta aurtan ere: kontsumo sostengarriagoan ari gara. Denbora luzerako izango delakoan, gogora ditzagun Gabonetako gastu neurrikoa eta probetxagarria egiteko gomendio horiek:

- Gure ahalbide ekonomikoaren arabera aurrekontua eta egiazki behar eta probetxatuko ditugun produktuen zerranda egin; eta horietatik ez atera.
 - Erosketak aurreratu, garestiagoak diren eta gozamen gutxiago ematen dituzten azken orduko erosketak ekidin.
 - Eskaintza edo promozio bereziak bilatu eta saltoki ezberdinetan salneurriak konparatu. Jostailuetan, adibidez, %50eko aldeak aurki ditzakegu.
 - Etiketak ondo irakurri, batez ere elikagaietan: iraungitasun eta aholkatutako kontsumoaren datak eta kontserbazio jarraibideak.
 - Hartzaileari oparia jaiak igarota jasotzeak axola ez badio, urtarrileko merkealdian erosi.
 - Tiketa edo faktura eskatu eta gorde, erreklamazioa egin behar izatekotan funtsezkoa baita.
 - Jostailu, gailu elektronikoko edota etxetresnen erostean Laguntza Teknikoko Zerbitzuak dau den ala ez eta non diren galdetu, beti ere honelako produktuek bi urteko bermea dutela gogoratu.
 - Menuak aurretiaz prestatu, elikagaiak aste batzuk lehenago erosi eta etxean behar bezala izoztu, aurrezki polita lor dezakegu.
- Ondo igaro Gabonak eta urte berri on.

Jose Luis Segura

(Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakundea)

gu geu

Badatoz eta badoaz

Kantuko belauntziak... Eta urteak ere... Eta egiteko barriak zein egindako zaharrak... Ibilaldia zer edo zergatik eteten denean, atzerantza begiratzea ezinbestekoa da, aurreari bultzada emon baino lehenago. Orduan, ikus daiteke... Bide nagusia behin aukeraturik dagoenean, eta bizitzak berori ibiltzeko bestelako bidezidor txikiagoak eskaintzen dizkigunean, ahaztu beharko ez genukeena dela bide nagusian ibiltzen segituko dutenen esku errimeetan erabaki osoz utzi behar dela lekukoa. Eta zertara dator hori dana? Bada, letra-korapilo agian zentzubako hau idazten dabilenak tarte batean UK-ko lantaldekoa izateari utziko diolako, "buelgara arte", eta bere aulki, ordenagailu eta beharrak beste lankide batek hartu eta beteko dituela; behargina ez da izango barri, ezta ezezagun ere... Sinadura batek bestea ordeztuko du, baina mamiak betikoa izaten jarraituko du: gure herri eta jendartearen informazio guzti-guztia zuri euskaraz eskaintzea, euskaraz bizitzeko ahaleginetan UK den ahaleginagaz jarraitzea.

Urte akabuan, "Urte barri on!!"

Urte hasikeran... "buelgara arte!", barri orrialdeotan alkar topatu arte!

Ordura arte... Ahalik eta ondoen... BIZI!

UK-ko lantaldea

[irudia]



2010EKO ABENDUAREN 12A, ALGORTAKO KASINOA

30 urte, poto egin barik! Lagunek, bertsoek eta ospakizunerako aitzakia porroek, berezi egin zuten Algortako Bertso Eskolak abenduaren 12an Algortako Kasinon egindako Ahobien Gala. 30 urte bete ditu txapelketerako zein plazarako bertsoariak trebatu dituen Algortako eskolak. Argazkian ikus daitezke hiru hamarkadetakoa ibilbidean eskolako bidaia lagun izan diren familia argazkia (batzuen faltan). Horien artean, merzitarako omenaldi hunkigarria jaso zuten Joseba Santxo eta Irino Azkoitia eskolaren sustrai eta enborrak; euren beharri esker 30 kandelari putz egin ahal izan diote ALBEkoek. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



Kopiak **SALGAI** bulego barrian

Martikoena 16, 2. solairua
Algorta (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan



Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Bagoaz Martikoenara!

UK aldizkariaren bulego barria:



Martikoena 16, 2. solairua
Algorta (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Iraganez doa denbora* beti / AINGERUAREN ETORBIDEA (GETXO)

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Gabon afaria



2010eko abendua, Algorta (Getxo)

Testua: **Juani Peñagarikano***
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Gaur kontatu nahi dizut
Euskadi laztana,
amets eder batetan
ikusit dudana:

Pakearen eskuak
zabaltzen kaiola
non, tristerik zegoen
preso gure anaia.

2

Hegalak ebakiaz
ezin zuen hegan,
baina Ipar haizeaz
gureganatu zan.

Ama! Hor duzu semea
zure magalean,
mahaikide izango duzu
Gabon afarian.

3

Kanta dezagun denok!
Kanta aleluya...!

Ez, Euskadi laztana,
amets bat izan da,
gure preso guztiak
han izango dira...
amets ederra baino
besterik ez da izan.

* Doinua: zehaztu barik

***Urteko azken zenbakian, Juani Peñagarikano harpidedunak UK-ko postara bidalitako bertsoak ekarri dizkizugu. Eskerrik asko Juani zure opariagatik! uk@aldizkaria.biz**

uk > bagoaz! Algortako Martikoena kalean aurki gaitzakezu



Getxo, akordaten naz 2 dokumentalaren kopia ere eros dezakezu bulego barrian

Ameztiko bulegoari agur esateko unea du UK aldizkariak, 11 urteren ostean, egoitza aldatuko baitugu. Getxoko Algorta auzoan lotuko gara, baina Martikoena kalean aurkituko gaituzu aurrerantzean, beste euskara elkarte batzuek batera. UK-ren aitzindari izan zen Bizarra Lepoan Getxoko aldizkaria Algortako Barrukoa taberna ondoko lokal batean egiten hasi zen, 1995ean. Baina aldizkaria hazi eta Uribe Kosta osora zabaldu zen 1999an. Aldaketa horregaz batera alokatu zuen UK-k Amezti kaleko bulegoa. Bide luzea osatu du aldizkariak, eta denborak aurrera egin ahala, aldaketak gertatu dira, bulegoan, zenbait edukitan eta langileetan. Baina aldaketak aldaketa, UK-ren izaerak bere horretan darrai, asmo berberagaz segitzen dugu lanean. Betiko ilusioz jarraituko ditugu hasitako egitasmoak, eta ildo horretan, bulego barrian ere erosi ahaliko duzu UK-ren azken argitalpena: *Getxo, akordaten naz 2* dokumentala. ○

kirola > euskal futbol selekzioa itzuliko da abenduaren 29an



Azken urte bian ez dute Gabonetako partidarik jokatu

Urte biren buruan barriz jokatuko du euskal selekzioak Gabonetako lagunarteko gizonen futbol partida, Euskal Selektzioa izenagaz. Jokalariek ez dute lortu akordiorik Euskadiko Futbol Federazioagaz, baina halere, partida jokatuko dute eta selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko baliatuko dute. Abenduaren 29an izango da partida, Venezuelako selekzioaren aurka, Bilboko San Mames zelaian. Jokalariek euren kabuz jakinarazi zuten erabakiaren barri azaroaren akabuan eta ESAIT Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldearen babesa jaso zuten. Azken horrek ere selekzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapen eguna bihurtzeko asmoa du abenduaren 29a. Oraindino garaiz zabilta partidarako sarrera eskuratzeko. ○

saiazgetaria



Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...hamia

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

koska irratia > 10. urteurreneko denboraldiari ekin dio



FMko 108.ean entzuten da Koska, edota interneten: www.koskairratia.com

Hamar urte joan da Koska Uribe Kostako irratia libreak mikrofonoak piztu zituenetik. Hamar urte eta lan handia egin du lagun askok boluntario, irratia aurrera ateratzeko. Hamar urteren buruan ilusioz ekin diote denboraldi barriari: iragan ikasturteko irratsaioak jarraitu eta saio barri bati leku egin diote: Koskako ekoizpen Pastadun betaurrekoak, Munduko sustraiak, Koskaberrri, Finean nafarrak, Bashatee, Gazte Uhinak, Asesino el Rock & Roll, eta Ghetto ohiko irratsaioez gainera, eskualdeko kirol taldeen jarraipena egingo diote ArnasestUK irratsaio barriari, eguaztenero, 21:00etan. Era berean, Info7 irratiko albistegiakaz egunero konexioa egingo dute eta Resumen Latinoamericano saioa eskainiko dute Arrosa Irrati Sarearen bitartez. Baina esan bezala, urteurrena ospatuko dute *10 urte uhinetan. Eskerririk Koska!* lelopean eta ekitaldietan urteurrena eurekatzat ospatzera gonbidatu dituzte uribe kostarrak. ○

getxo > aixerrota institutuko ikasleak saridun EducaRed txapelketan



Abenduaren 10ean banatu zituzten sariak institutuan

Internet ikasle, irakasle eta gurasoen arteko heziketa pedagogikorako tresna izatea gura du EducaRed programak. Dagoeneko 10 urte daroa martxan eta ikasleen artean nazioarteko txapelketa antolatu ohi du, hezkuntzan teknologia barrien erabilera bultzatzeko. Iaz Getxoko Aixerrota institutuko bi ikasle talde suertatu ziren irabazleen artean, Marian Mugerza literatura irakasleak gidatuta, eta abenduan eman zizkieten sariak ikastetxean bertan; 9-10 ikasleko taldeak dira. Jada institutuko ikasketak amaitu dituzte, iaz egin zuten Batxillergoko bigarren maila. Wiki kategorian irabazi zuen taldeetako batek *La casa de Bernarda Alba* obrari buruzko lanagaz. Beste taldea Blog kategorian lotu da bigarren, Blas de Otero poetari buruzko blogagaz. ○



“Arazoak ditugunean Bizarra Lepoaneko lagunak deitzen ditut negarrak botatzeko; asko lagundu digute”

Laura Lapeyra > Zabala Eskolako Guraso Elkarteko kidea

Bileraz bilera lotu barik; azken asteotan gainera, kazetarien galderi erantzuteko tartetxoak bilatu behar ditu. Getxoko I. Euskara Saria eman diote Laura Lapeyra eibartar getxozartuari; saria “ezustean” hartu badu ere, ezagutzen dugunok badakigu Zabala Eskola euskalduntzen egindako beharrak aipamen berezia merezi duela. Orain zortzi urte alabakaz batera Algortara heldutakoan hasi zen dena: *“Ikasturte amaierako festa egunean umeak erdaraz entzun nituen; moskeatu nintzen eta zerbait egin behar zela erabaki nuen”*. Berehala, Guraso Elkarteagaz harremanetan jarri zen eta, ordutik, ez du deskantsurik izan: *“Osasuna lagatzen nabil hemen!”*. Proiektu txiki batez hasi zena, forma hartuz joan da: *“Umeak Lurraska baserri eskolara eramanez genituen lehenengo urtean, euskalki barri batera hurbiltzeko; hortik aurrera, gustuko dutena ikusten joan gara”*. Txikiak euskara hutsean entzuteak, ilusioz betetzen du Lapeyra: *“Oraindik gogoratzen dut, nire alabaren gelakide bat nigana euskaraz hurbildu zenean lehenengoz; orain, denek egiten didate euskaraz”*. Eskolatik urtendakoan ere, euskaraz bizitzen saiatzen da. 100 urte beteko ditu Zabala Eskolak laster; mendeurren ospakizun prestaketak zein eguneroko lanak gainezka egiten badio ere, gogoz egiten du aurrera: *“Arazoak ditugunean, Bizarra Lepoaneko lagunak deitzen ditut negarrak botatzeko; asko lagundu digute”*. Animo eta aurrera! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

1.000 etxebizitzatan galdezka

HAPO barriaren idazketa lantaldeari emango zaion biztanleria, etxebizitza eta enplegu azterketa egin du Udalak; **5.000 etxebizitza** behar direla ondorioztatu du

Udalerriko 1.000 etxebizitzatan egindako inkestetan oinarritutako biztanleria, etxebizitza eta enpleguari buruzko azterketa egin du Udalak. Hiri Antolaketa-rako Plangintza Orokorra barria diseinatuko duen idazketa-lantaldeari pasako diote proiektuaren diseinuan kontuan izan dezaten. **3.894 familiatan etxebizitza barria behar dela ondorioztatu dute azterketaren egileek.**

Udalerriko 1.000 etxebizitzatan egindako inkestan oinarritutako azterlanaren ondorioak aurkeztu zituen abendu hasieran Udalak. Aholkularitza-enpresa espezializatu bat arduratu da enplegua, biztanleria eta etxebizitzaren egoera ikerketagai dituen azterlana osatzeaz. Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra (HAPO) diseinatzeaz arduratuko den idazketa-lantaldeari emango zaio; 2011ko urtarrilerako lantaldea osatuta egotea espero dute. Aurreikusitakoa betez gero, hurrengo legegintzaldi hasierarako lantaldeak proposamena aurkeztuko du; HAPO berraztertzeke Bartzorde Bereziaren ildoak kontuan izan beharko dituzte proposamena aurkezteko.

Guztira, 5.000 etxebizitza (lehenengo etxebizitza zein aldatu beharrekoa) behar dituzte getxoztarrek, azterlanaren arabera. 3.894 familiatan lehenengo etxebizitza behar dute; azken datu horri gehitzen badiogu azken urteotan familia unitatearen batez bestekoak behera egin duela (duela hamar urteko 3,05etik 2009ko 2,86ra), hortik ondorioztatzen du Udalak



2011ko urtarrilerako osatu gura dute HAPO aztertzeko lantaldea

5.000 direla HAPOk jaso beharreko etxebizitzak. Horren barruan egongo dira, egungo Etxebizitza Egitasmoak aurreikusten dituen 1.000 etxebizitzak.

Etxebizitza eskatzen dutenen perfilari begiratuta, %80 bakarrik dauden per-

«Etxebizitza eskatzen dutenen %80 bakarrik dauden pertsonak edo seme-alaba bako bikoteak dira»

tsionak edo seme-alaba bako bikoteak dira. Getxon, jabegoan eta 61 eta 75 metro koadro arteko bizilekua gura dute.

Azken zortzi urteotan, nabarmen egin du behera Getxoko biztanleriak; Andra Mari auzoan soilik egin du gora. Horren arrazoia, seme-alabak izateko adinean (40 urte artekoak) dauden lagunak inguruko

herrietara (Sopela, Berango, e.a.) joan direla da. Horrek biztanleriaren zahartzea ere ekarri du; batez besteko adina 42,6 urtekoa da gaur egun (Andra Marin, 40,37, Algortan 42 eta Areetan 46,6). Herritik alde egin duten gazteen gorakadak ekarri duen biztanleria galera, kanpotik gurera etorritako lagunek arindu dute (biztanleria guztiarekiko %6,6ko saldo positiboa).

Bildutako datuek hiru eszenatoki planteatzen dituzte Udalaren arabera: egungo biztanleria mantentzea, gutxitzea eta haztea 85.000ra iritsi arte. Joseba Arregi Hirigintza Zinegotziak erabaki horrek herritarren esku egon behar duela esan zuen azterlanaren aurkezpenean: *“Ikerketa eragile politiko, sozial, elkarte eta, oro har, herritarren eskuetan utziko dugu, guztion artean nahi dugun etorkizun urbanistikoa ados dezagun”*. ○

Jolaslekurik handiena

Algortako Geltoki Plazan, 2011 urte hasierarako



Algortako azokan ikus daiteke proiektuaren gaineko erakusketa

2011 urte hasieran emango dizkiote azken ukituak Algortako Geltokia Plazari. Zoladura, argiztapena eta oinezkoentzako esparruen egokitzapena 2010a amaitu baino lehen amaitzea aurreikusita dago eta datorren urte hasieran egiteko utziko dute Udalerriko umeentzako jolaslekurik handiena izango dena. Guztira 4.400 metro koadro izango ditu plazak eta 800 jolasgunerako izango dira.

Argia pasatzen utziko duten koloretako bost markesina erraldoik estaliko dute umeentzako gunea; horiek jartzeko erabakia, Romoko Txabarri Zuazo parkekoek izan duten arrakasta ikusita hartu da. Horrela, eguraldiak ez du erabilpena baldintzatuko eta familia osoak erabili ahal izango du. Jolasteko hamar elementu izango ditu; horietako batzuk, ezintasun-

ak dituzten umeek erabiltzeko egokituta egongo dira. Horiek jartzeko erabakia ere, Areetako Eskoletako plazan jarritakoa izan duen erabiltzaile kopurua ikusita hartu da. Ohikoak diren zabuak eta txirristez gain, soka jolas elektronikoa jarriko dute, umeen artean talde jolasa sustatze aldera. Jolas gunearen aurrekontua milioi erdi eurokoa izango da; plazarena guztira, 1.362.000 eurokoa.

Kaleak eta saltokiak erakargarriago eta seguruago egiteko, bai Plazan bertan baita Torreñe eta Juan Bautista kaleetan ere, zoladura barria eta argi gehiago jarri dituzte.

Auzotarrek Geltokia plazan egingo diren lanen inguruko informazio zehatzago izan dezaten, erakusketa bisitatu ahal izango da Algortako azokan. ○

GABONETAKO KANPAINA HERRIKO DENDEN ALDE

Gabonak bertan. Getxon baino hobeto, non? izeneko kanpaina martxan jarri du Udalak, herriko merkatari eta ostalariakaz elkarlanean. Horren helburua Gabonetan, herritarrek bertoko dendetan eta jatetxeetan kontsumitzera animatzea da. Lau ekimen egongo dira. Alde batetik, Eguberri kantak entzun daitezke herriko kaleetan abenduaren 9tik. Bestalde, herriko abesbatzek emanaldiak eskainiko dituzte kalez kale, abenduaren 21, 23, 29 eta 30ean, 19:00etan eta 21:00etan. Horrez gain, Areetako Getxolandiaren karpapean eta Algortako Torreñe kalean erosketak denboraldi batez uzteko gunek jarri dituzte. Horietan, erosketak etxera doan erodateko aukera ere emango dute. Azkenik, Ama Mesedeeetako aparkalekuan ordubetez doan aparkatzeko, zenbait dendak bonoak banatuko dituzte.

ERREKAGANEKO ETXEAK BOTA GURA DITUZTE

Gobela Ibaiko lanak jarraitzeko 2.000.000 euroko kreditua bideratzea onartu zen azaroko Udaltzatzen, EAJ, PP eta PSEren aldeko bozkakaz. Alternatiba alderdiak aurka bozkatu zuen. Izan ere, dirua Errekagane eta Zubilleta kaleetako Gobelako lanetan erabiltzeko erabili gura du Udalak; Errekagane lanen barruan, Itzabalzeta Gaztetxea zein gazteek autogestio-tutako beste zenbait lokal botatzea aurreikusten da. Orain arte egin bezala, Udalak URA Agentziaren esku utziko ditu lurak lanak aurrera eramateko; lanak 2011n hasia aurreikusten dute.

ORDUTEGI BEREZIA GABONETAN LUDOTEKAN

Kukupraka Udal Ludotekak, ordutegi berezia izango du Gabonetan, erabiltzaileei, lana eta familia bateragarri egiten laguntzeko. Bazkide diren eta ez diren 5 eta 11 urte bitarteko umeentzat, 10:30etik 13:30era egongo da zabalik ludoteka, abenduaren 27tik urtarrilaren 7a arte. Abenduaren 24an eta 31n eta urtarrilaren 1ean eta 2an itxita egongo da.

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Unai Oñederra > “Hipo-krisia” alegia

“Bankuek eurak sortutako krisia erabiltzen dute diru gehiago irabazteko”



Eztabaida Gunean (Amezti 3, Algorta) eskura daiteke Oñederraren liburua. www.eztabaida.org

Algortan gunea duen Eztabaida Gune Antiautoritarioak, euskarazko eleberria argitaratu barri du. Unai Oñederrak (Donostia, 1973) idatzi du krisiaren eta sistema kapitalistaren salaketa xamurra egiten duen Hipo-krisia alegia; Eztabaidako lagunek ilustrazioak apaindu dute. Pentsamendu bakarrari alternatiba bilatu gura izan dio Oñederrak besteen kontura bizi den hipopotamoaren istorioagaz. Izenburuak sortzen duen berba jokotik abiatuta, hazkunde ekonomikoaren itsukeria, Ikerketa eta Garapenaren gezurrak eta beste zenbait gai jorratu ditu.

—Zer dela eta hasi zinen idazten?

—2005ean eszedentzia hartu nuen, umeengatik. Lau urtez egon naiz lanaldi osoko enplegurik gabe; horregatik, idazteko denbora izan dut. Gainera, Erljio Zientziak ikasten hasi nintzen eta horrek zenbait kezka sortu zidan. Bestalde, krisiarekin gertatzen ari denak ere kezkatzen ninduen. Prentsan ikusten denaren arabera, badirudi krisiaren aurrean denak berdin jarraitu behar duela, kontsumismoarekin hautsi gabe. Kezka asko nituen, baina ez nintzen ausartzen idaztera.

—Nola heldu zen argitaratzeko aukera?

—Idatzitakoan emazteari eta zenbait eza-guni eman nien. Gustatu egin zitzairen, baina ez nuen argitaratzeko aukerarik ikusten. Lagun batek Eztabaida Gunearen barri eman zidan; Getxon gauzak egiteko gogoarekin zegoen gazte talde bat zegoela jakin nuen. Idatzitakoa bidali nien eta asko gustatu zitzairen; niretzat krisitoren poza izan zen.

—Zein da Hipo-krisi-aren mezua?

—Badirudi Pentsamendu Bakarria dela eta, ez dagoela kapitalismoari alternatiba

bilatzerik. Nik mezu hori zabaldu gura nuen, baina modu xamurrean. Informazio alternatiboa, beste gizarte mota bat egingarria dela esaten digun informazioa aurkitzea, ez da batere erraza. Komunikabideek mezu bakarra ematen dute.

—Zein da istorioaren haria?

—Krisia aspaldi dago; jendea gosez hiltzen da elikagaiak soberan daudenean. Krisi ekologikoak urteak daramatza. Goikoek aldiz, krisiaz hitz egiten dute soilik finantza krisia dagoenean. Azken horren irtenbide moduan, bankuei dirutzak ematen dizkiete. Hori da hipokrisia!

«Hipopotamoak sistema oso bat asmatuko du ura metatzeko»

Bankuek, eurak sortutako krisia aitzakiatzat erabiltzen dute gehiago irabazteko. Liburua kaleko pertsonaren ikuspegitik eta ipar-hegoa gaiari helduz abiatzen dut. —Hipopotamo baten bizitzan islatu duzu hori guztia

—Hipo-krisia hitz jokotik abiatuta, metaketaren ideia hipopotamoaren bizitzan islatu dut. Hipopotamo ondo bizi da, baina arazotxo bat dauka. Hori konpontzeko, sistema oso bat asmatuko du, ura metatzean datzana. Ura metatzeko ingurukoei lapurtuko die; sistemarekin itsututa dago eta, nahikoa izanda ere, gehiago nahi du beti. Hori da kapitalismoaren etengabeko hazkundera, gutxien dutenen kontura. Sortu duen sistemak arazo asko ditu; horien artean, hipopotamoaren lagunek (Botereak), ura lapurtuz euren metagailu propioa sor dezaketela ikusten dutela. Eskulan merkea erabiliz, metagailua zulatu eta lapurtzen dute. Modu errazean kontatuta dago eta gazte zein helduentzat erabilgarria da. ○

Gabon parkea eta izotza

Abenduaren 20an zabaldu dituzte Getxolandia eta Biotz Alaiko izotz-pista



Urtarrilaren 9a arte egongo da zabalik izotz-pista Algortako Biotz Alai plazan

Heldu dira Gabonak eta eurekaz batera umeentzako jolas-parke eta ekimenak. Ume eta gazte getxoiztarrek badute non olgatu herrian. Aurten, ohikoa den Getxolandia haurrentzako Gabonetako parkeaz gain, izotz-pistan patina dezakete.

Areetako Geltokia plazan jarri dute haur parkea. Abenduaren 20an zabaldu zituen ateak eta 2011ko urtarrilaren 5a arte bisitatu ahal izango da. Atrakzioetan sei bidaia egiteko, 3,50 euro ordaindu behar dira. 22a arte ikastetxeentzako zabalduko dute. 23tik urtarrilaren 4ra ostera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara guztientzat egongo da

zabalik. Abenduaren 24 eta 31n eta urtarrilaren 5ean ordubete lehenago itxiko du arrastian; 25ean eta 1ean itxita egongo da.

Algortako Biotz Alai plazak, abenduaren 20tik urtarrilaren 9a arte zabalik egongo den izotz-pista hartuko du. Horretan ere, 3,50 euro ordaindu beharko da 45 minutuko saioagatik. Getxolandia orduetegi bera izango du.

Bestalde, abenduaren 27 eta 29an, 18:00etan, haur antzerki emanaldi bi egongo dira Areetako Musika Eskolan: astelehenean, *La Gallina Churra* eta eguaztenean, *Olentzeroren Gutunak*. ○

OLENTZERORI HARRERA BEROA ALGORTAN 23TIK

Badator! Ikazkin tripa handiak Algorta bisitatuko du abenduaren 23 eta 24an. Egue-nean, 18:00etan pailazoan emanaldiagaz hasiko dira ospakizunak. Ondoren, bertso saioa egingo dute ALBEko gazteek. 20:00etan, umeentzako berbera eta Taberna Ibiltaria taldeagaz kalejira egingo dute, Algortako kaleetan. 24an barriz, goizean hasiko dira ekimenak. Puzgarriak izango dira 12:00etatik 14:00etara Zabala eskolan. 17:00etan herriko ume zein nagusiek Olentzerogaz batera ohiko kalejira egingo dute. 18:00etan geldialdi berezia egingo dute Villamonte plazan. Opariak banatzeaz gain, txokolata eta gaztaina erreak banatuko dituzte. 20:00etan helduko da ikazkina Portu Zaharrera eta bere istorioa kontatu, eta aurrekoa dantzatu ostean erreko dute.

BLOG BARRIAGAZ HASI DIRA BERBALAGUNAK

Urtez urte indarra hartuz doa Berbalagun egitasmoa Getxon. Aurten 200 lagunetik gora batu dira, astean ordubetez gutxienez mingaina euskaraz dantzatzeko jartzeko. Tabernan kafea hartu edo Euskaltegiko lanak egiteaz gain, badaude jarduerak zehatzak egiteko batzen diren lagunak. Bizikletan ibiltzeko, mendira joateko, eta padelean edo paletan jolasteko taldeak sortu dira; baita bizkaiera taldea ere. Talde txikietan biltzeaz gain, urtean zehar hainbat ekimen egongo dituzte talde handian. Informazioa lortzeko zein izena emateko Egizuren web gune barria bisita daiteke.

Info+: www.egizu.org

ESKOLATIK KANPO EUSKARA SUSTATU

40.000 euro banatuko ditu Udalak guraso elkarteek zein ikastetxeek euskararen eza-gutza eta erabilera bultzatzen eskolaz kanpoko jardueratan. 118 proiektu jarriko dituzte martxan, joan den urtean baino 10 gehiago. 11 guraso elkarteek 89 ekimen eroango ditu aurrera; ikastetxeek barriz 29 ekimenentzako jasoko dute laguntza. Mota askotakoak izango dira jarduerak.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Aimar Ruiz > film labur egilea

“Gero eta esperientzia handiagoa ikusten da, gero eta zaletasun handiagoa dago ikus-entzunezkoetan”

Leioako Film Laburren Lehiaketan saria jaso du Aimar Ruizek, herriko egileen artean lanik onenari. Jon Goikouriaz batera egin du *Uria* film laburra. Biek lehenengoz parte hartu dute Leioako sariketan.

—Lehenengoz parte hartu duzue Leioako lehiaketan, eta irabazi.

—Bai, lehenengoz parte hartu dugu lehiaketa honetan, baina ez da gure lehen film laburra; hamarretik gora egin ditugu, izan ere, Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi dugu Euskal Herriko Unibertsitatean. Bigarren saria da biontzako.

—Zinema afizio duzue orainoz?

—Hala da, iaz amaitu genituen ikasketak, eta lana topatu artean gure lektuak eta bestelakoak. Ateratzen dena egin behar dugu, lehiaketetara aurkeztu, e.a.

—Zuk behintzat, zinema gustuko duzu?

—Zinema zein telebista. Hori da ikasi dudana, eta horretan lan egin gura genuke etorkizunean. Gero eta jende gehiago dabil jardueran honetan, gero eta esperientzia handiagoa ikusten da, gero eta zaletasun handiagoa dago ikus-entzunez-



Jon Goikouria eta Aimar Ruiz

ko esparruan aritzeko. Txikitatik dut gustuko argazkilaritza, zinema ere bai, eta azkenean horixe ikasi dut.

—Karrera hasteaz batera hasi zineten film laburrakaz?

—Beno, egia esan gauzatxoak egin genituen, baina esperientzia barik ezin gauza txukunik egin. Batez ere laugarren mailan hasi ginen serio bideoak eginen. Jonek eta biok elkarregaz ikasi dugu, baina lagunak ere bagara.

—Uria filmagaz irabazi duzue, zer erakusten du?

—Film esperimental da, eta omenaldia ere bada iragan mende hasierako sobietar zinemagintzari, *El hombre y la cámara* filmari zehazki. Leioako kaleak grabatu genituen 10 orduz, gudan interesa piztuz gure guztia grabatu genuen.

—Eta beste lanen batezabiltzate?

—Beti dago lehiaketaren bat, otsailean aurkeztuko dugu hurrengo egitasmoa. ○

Antzerki sasoi

Gabonetarako umeentzako antzerki zikloa prestatu dute Kultur Leioan



Uharteko ezeguna antzezlanaren irudi bat

Opor sasoi dituzte umeek Gabonak. Hotz sasoi da gurean, baina baita jateko, abesteko, gozatzeko eta ondo pasatzeko sasoi ere. Horregatik haurrentzako antzerki ziklo bat prestatu du Kultur Leioak abenduaren 26tik 30era. Egunero ikusi ahal da antzezlan bana, guztiak desberdinak, bat euskaraz eta gainontzeko laurak gazteleraz. Lehenengoa izan ezik, 18:00etan izango dira denak.

Abenduaren 26ko antzezpena, lehenena, 12:00etan hasiko da: *Juan sin miedo*. Kataluniatik etorriko da Egos Petits taldea eta Joan Maria Segurak zuzenduko du lana.

Hilaren 27an emango dute euskarazko lan bakarra, *Uharteko ezeguna*. Esan

bezala, 18:00etan hasiko da. Markeliñe taldeak antzeztuko du.

Biharamunean, ordea, valentziarren txanda izango da. La Coja Dansa taldeak antzeztuko du *Retrats Habitats* obra, Tatiana Clavelek zuzenduta. Abenduaren 29an, eguaztena, LaEnanaNaranja euskal taldeak eskainiko du *Ma; corazon de locomotora* lana; Iker Garciak zuzendu du. Eta azkenik, Frantziatik iritsiko da Akoreacro taldea, *Pffffff* ikuskizuna eskaintzeko.

Kultur Leioako Auditorimen antzeztuko dituzte lanak eta dagoeneko sarre-
rak eskura daitezke, obra bakoitza 5 euroren truke. Bost emanaldietarako bonoa eros daiteke 20 euroren truke. ○

NORK EKARRIKO DITU OPARIAK?

Gutuna idatzi al diozu Olentzerori? Ez? Bada, Pinuetan zuzenean hartuko dizu Olentzerok berak abenduaren 23an, 18:00etatik aurrera. Baina gainera, berari kantuak eskaintzera eta agurtzera urten beharko duzu abenduaren 24an, ezta? Olentzero auzoz auzo ibiliko da arrastian. Elexalden 17:00etan urtengo da Errotatik eta 18:30ean helduko da Kultur Leioara, plazarik plaza ibili ostean. Romo-Pinuetan 17:30ean urtengo da Romoko elizatik, eta Lamiakon, ordu berean Metro geltokitik. Baina herriko taldeek ere aterako dute beraien Olentzero, ohiko legez, herrian zehar abesteko; argi ibili eta segi kantatzera! Bestalde, Erregeak iritsiko dira urtarrilaren 5ean eta desfilea egingo dute Lamiakoko kaleetan 18:00etan eta erdialdean 18:30ean. 2011ko lehen asterako, gainera, jolasak, tailerrak eta ekintzak prestatu dituzte Kandelazubieta kiroldegian umeentzat; urtarrilaren 2tik 5era garatuko dituzte.

MAITASUN HITZAK INOIZ EZ DIRA SOBERA

Udalak Maitasun Gutun XII. Lehiaketa abiatu du beste behin ere; izan ere, literatur genero ere badira gutunak, eta sentimenduak komunikatzea sustatu eta genero horren aberastasuna berreskuratzeko asmoa dute lehiaketagaz. Abenduaren 31 arte aurkez daitezke gutunak Kultur Leioan. Edonork parte har dezake, haur zein heldu, lau maila baitaude adinaren arabera banatuta. Gura beste gutun aurkez daitezke, euskaraz zein gazteleraz. Gutun bakoitzak orri bi izango du gehienez. Estiloa, kontaketa garapena, aurkezpena eta originaltasuna baloratuko dituzte, eta eskuz idatzitako lanetan, kaligrafia. Baina Paperaren ezaugarriak ere baloratuko dituzte, maitasunari ari garelako ohartuta: kolorea, usaina eta ehundura. Saia zaitezke bihotza husten.

Info+: www.kulturleioa.net

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



Luberr Basolanak, SL
Ape ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzoru prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, furtsezko ongarritze lanak eta anita lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta desrinkotzea, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaitza apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.

- Barrualdeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Mitxel Diez Espina > Udal Musika Bandako zuzendaria

“Erandioko Musika Eskolatik saiatzen gara hartzen musikariak, ahalik eta gazteen izatea gura dugu”

Martxoan beteko ditu 45 urte Erandioko Udal Musika Bandak, Uribe Kostan geratzen den Udal Banda bakarrak. Mitxel Diez sorreratik dabil, bandagaz hazi da eta duela 11 urte zuzentzen du.

—Banda zuzentzen duzu eta 45. urteurrena ospatu behar duzue, nola?

—Kontzertu berezi bat egingo dugu, baina programa zehazteke daukagu.

—Baina Erandioko Banda Gerra Zibila baino lehenagokoa da, ezta?

—Ez dakigu noiz sortu zen lehenengoz, baina duela gutxi hildako musikari baten aitite-amamak bandan ibili ziren, eta beraz, gutxienez duela 140 edo 150 urte bazegoen Erandioko Banda. Gerra Zibilaren ondorioz 30 urteko etena egon zen eta 1966an birsortu genuen.

—Gainera, zuk bakarrik jarraitzen duzu hasierakoan artean, ezta?

—Zorixarrez bai. Ni Basauriko Bandan nabilen eta 1965ean desagertu zen. Bertatik geratzen ginenen eta Erandioko musikarien artean birsortu genuen Banda, 12 urte neukala.

—Gainera, Banda gaztetzeko helburuagaz aritu zara zu.

—Sorrerako jendeak utzi du apurka, eta hutsik geratutako lekuak jende gazteagaz betetzen saiatzen gara. Erandioko Musi-



Musika Bandak barikuro entseatzen du Altagako azoka zaharrean

ka Eskolatik saiatzen gara hartzen musikariak, bertatik lauzpabost dauzkagu. Ahalik eta gazteen izatea gura dugu. Baina Erandiokoakaz bakarrik ezin dugu Banda osatu, eta beraz, gainontzeko musikariak beste herrietakoak dira.

—Bateria eta gitarra elektrikoa erabiltzen dituzue, ez da oso ohikoa.

—Beno, gaur egun garatuz doa dena. Banden musika ez da lehengoa. Pasodobleak eta zarzuelak ere jotzen ditugu, baina entzule gazteek bestelako-

ak eskatzen dituzte, filmen musika adibidez. Kontzertu albotik igarotzean entzutera geratzen dira, lehengo edo euskal musikagaz ez da horrelakorik gertatzen. Ez dago horretarako kultura musikalik, gazteek ez dituzte ezagutzen zortzikoak edota ezpatadantzak.

—Non joko duzue hurrena?

—Urtarrilaren 2an eskainiko dugu Urte Barriko Kontzertua Altagako azoka zaharrean, duela lauzpabost urte legez; herritarrek gustuko dute. ○

Industrialdea Playabarrin

2011n abiatuko dituzte lanak **Zorrozaurreko enpresak** eta bestelakoak hartzeko



Asua errekaen industriagune biak berreskuratu gura dituzte etorkizunean

Playabarrin esaten dioten gunean industrialdea eraikiko dute datorren urtean, 60.332 metro koadroko eremuan. Zorrozaurreko lantegiak hartuko ditu industrialdeak, baina bestelako enpresak ere kokatuko dituzte bertan. Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkailur Elkarteara da lurren laurdena eta sei milioi euroko inbertsioa aurreikusitako Udalak. Azken horrek Plan Berezia onartu behar du lehenik.

BI-735 errepidearen eta Asua erreka-aren artean kokatuko da industrialdea, Rontegira doan biribilgunera arte. Helburua ei dute Bilboko Zorrozaurreko lantegiak birkokatzea, baina bestelako en-

presak ere lekutuko dituzte Erandion.

Horietakoa batek, garraio enpresa batek, industrialdearen %19 hartuko du, Udalak dioenez. Gainontzeko eremuan lantegi txikiagoak sartuko dituzte; “*kutsadurarik gabeko jarduerak garatuko dituzte denek*”, Udalaren arabera.

Playabarrirako egitasmoa 1993koa da. Jakinarazi dutenez, urteotan lurra garbitu behar izan dute kutsadura ateratzeko eta Asua errekaen ibilbidea aldatu. Baina egitasmoa lehen urratsa besterik ez da proiektu handiago baten barnean. Eremu horretan, erabiltzeari utzitako Asua erreka-aren industriagune biak berreskuratu gura dituzte. ○

BADATOR OLENTZERO!

Urtero legez iritsi da ordua, Olentzero badator opariz gainezka eta auzoz auzo ibiliko da etxeetara igaro aurretik. Erandiogoikoa bisitatuko du aurrena, abenduaren 23an. Goi-Alde dantza taldekoek antolatuta auzoan ibiliko da 18:00etatik aurrera. Altagara eta Astrabudura, barriz, 24an joango da. Uztargi Dantza Taldekoak Bekoa ikastetxetik urtengo dira abestera 17:30ean. Kalez kale ibili ostean azoka zaharrean amaituko dute ibilbidea. Gautxoriak Taldeko, Altagako Guraso Elkarteko eta Gazte Asanbladako lagunak, barriz, 18:30ean abiatuko dira San Jeronimotik. Kantuka ibiliko dira kalez kale, eta 20:00etan, antzezpena egingo dute Irailaren 23a plazan. Astrabuduan, barriz, umeentzako jarduerak izango dira goizean Josu Murueta plazan, eta 18:00etan, Trabudu Dantzari Taldekoak aterako dira abestera Ignacio Aldekoa ikastetxetik.

ANTZERKIA ETA JOLASAK UMEENTZAT, GABONETAN

Altzagan zein Astrabuduan, hainbat antzerki lanegaz gozatuko dute herriko umeek Gabonetan. Altagako azoka zaharrean abenduaren 27tik 30era izango dira emanaldiak, 19:30etik aurrera. Lehen egunean Konfetti, Tutik Klowns eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak arituko dira. Abenduaren 28an *Olentzeroren gutunak* antzetzuko du Kalika Teatror, 29an *Baso sorgindua* ekarriko du Patata Tropikalak, eta 30ean, *La flor de la Antartida* lana eskainiko du Erre Produkzioak taldeak. Astrabuduan, barriz, urtarilaren 2an eta 3an izango dira antzezpenak, 19:30ean horiek ere. Hilaren 2an Potxin eta Patxin pailazoak arituko dira, eta 3an, *Aitona Matias* lana eskainiko du Teatre Nu taldeak. Urtarrilaren 4an, ordea, film bat emango dute. Hori dena gutxi ez eta Gabonetako Haur Parkea ipiniko dute kiroldegietan abenduaren 26tik 30era Altzagan eta urtarilaren 2tik 5era Astrabuduan.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 848 430 82 42 / 847 882 997 • registro.bizkaia.net
18931 kabea 1º ALOORTA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

OLENTZERO ETA ERREGEAK IRISTEAR DIRA

Gabonak dira eta Olentzerok eta Erregeek laster egingo dute itzulia Sopelatik. Lehena abenduaren 24an helduko da Urgitxieta plazara, 17:00etan. Handik Udaletxera bidea hartuko du, trikitilariak, albokariak eta dantzariak lagunduta. Erregeek ere bide bera egingo dute, baina urtarrilaren 5ean, eta 18:00etan. Gainera, abenduaren 27tik 31ra umeentzako jarduerak izango dira Urko kiroldegian: puzgarriak, tailerrak, izotzeko rokodromoa, ikuskizunak eta abar.

PILOTALEKUA JOKATZEKO PREST BARRIRO

Abenduaren 3an berrikeri zuten Sabino Arana kaleko pilotalekua, barritzeko eta atontzeko lanak amaituta. Eskuz binakako bi partidagaz ospatu zuten: Apezetxea-Larrinaga, Gorka-Cecilioren aurka eta Gonzalez-Zubieta Titin III-Laskurainen aurka. ETB1 telebista kateak eman zituen. Hainbat lan egin dituzte tokia hobetzeko. Aldagelak barritu dituzte, banaketa aldatuz; emakumeentzako aldagela bi, gizonentzako beste bi eta mugikortasun gutxitua duten pertsonentzako beste bat egin dituzte. Igogailua aldatu eta kantzako paretak barritu dituzte.

MOBY DICK LAIAK TABERNAN 30EAN

Eguenetan musikari tartea eskaintzen hasi ziren duela pare bat hilabete Laiak tabernako lagunak, hilean behin musika akustikoa, leuna eta atsegina eskaintzeko asmoz, Musika aLAlA egitasmoaren baitan. Irailean Peter Abels gitarrista holandarrak jo zuen, urrian Federico Abreu uruguaiarrak eta Pablo Montanelli argentinarrek tangoak eskaini zituzten, azaroan Anje Duhalde musikariak kantatu zuen sopeloztarrakaz batera, eta abenduaren 2an, Bikoizten talde algortarra aritu zen taula gainean. Urtea amaitzeko, barriz, Moby Dick kantautoreak bisitatuko du Bentatxu kaleko taberna, abenduaren 30ean, 21:00etan.

143 BOE Bareño eta Asun

Udalak akordioa egin du Eusko Jaurlaritzagaz eta Etxebidek kudeatuko ditu



Sopelan erroldatuta eta Etxebiden urtebete izena emanda egon behar da zozketan parte hartzeko

Asu eta Bareño inguruan Babes Ofizialeko 143 Etxebizitza egiteko lehen urratsa eman dute Sopelako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak. Lurrak etxeen ordezkariak trukatu dituzte Udalak eta Eusko Jaurlaritzak: Udalak lurrak emango dizkio Jaurlaritzari eta hark etxeak eraikiko ditu bertan.

Zehazki, Bareño sektoreko lurzoru bi eta Asu sektoreko hiru dira horiek, biak berriki urbanizatutakoak. Lur-sailok udal plangintzan aurreikusita zeuden BOEak eraikitzeke.

Erakundeek jakinarazi dutenez, helburua dute baieztatutako etxebizitza premia duten eta errenta gaitasun urria dutela eta, merkatu askean etxebizitza erosteko aukerarik ez duten familientzako etxeak eraikitzeke. Mugikortasun gutxitua duten pertsonentzat eta gazteentzat gordeko dira etxe batzuk.

Etxebizitzaren zozketan parte hartzeko 2009ko abenduaren 31 baino lehen izena emanda egon behar da Etxebiden, hark kudeatuko baitu egitasmoa. Gainera, Sopelan erroldatuta egon behar da prozedura hasi orduko. ○

Gonzalo Irigoras > Gure Txoko elkarte

“Ohiko kirolei alternatiba gisa proposatu gura dugu skatea”



Elkarteari eta bere zereginari buruz gehiago jakiteko: www.guretxokoskatopark.com

Skate txapelketa jokatu da urtarri-laren 2an, Zipiriñe eskolan. Gure Txoko elkarteak eta Gazte Bulegoak antolatu dute, Gonzalo Irigorasek argitu dizkigu lehiaketari buruzko galderak.

—Ez da txapelketa antolatzen duzuen lehen aldia, ezta?

—Ez egia esan, 2007tik gabiltza elkarlanean Sopelako Udalagaz. Skate kirolari dagokionez Bizkaiko Udal aktiboenetakoa da. Pentsa, sei hilabeteen bigarren egingo dugu skate txapelketa.

—Nolatan animatu zineten horrelako zerbait antolatzen, Sopelan oso hedatuta al dago kirol hau?

—Bai, Sopelak beti izan du surf kultura handienetakoa Bizkaian. Kontu horregaz lotuta, eta kirola erakutsi zaienean eta ezagutu dutenean, normala da gazteak skate-a praktikatzera zaletu izana.

—Zer helburu duzue txapelketagaz?

—Betikoa, Bizkaian skate kirola zabaltea eta sustatzea, eta Bizkaia Estatuko

skate munduan bultzatzea. Bestalde, gazteak motibatzen eta hobetzen laguntzen dieten ekintzak eskaini gura ditugu, aurrera egiten laguntzeko. Ildo horretan, ahalik eta gazte gehien erakarri gura dugu kirol liluragarri hau, alkoholari eta drogari alternatiba bat eskainiz.

«Ikastaroak eman eta txapelketak antolatzen ditugu, skatea sustatzeko»

—Eta txapelketak lagunduko du horretan, gazteen artean kirola sustatzen?

—Bai, jakina, futbola edota saskibaloia bezalako ohiko kirolei alternatiba gisa proposatu gura dugu skatea. Hein batean, skater fabrikatzaileak daukagu gure burua.

—Gure Txokon zer egiten duzue?

—Batez ere skate ikastaroak ematen ditugu Bilboko gure pistan eta ikastetxeetan, txapelketak antolatzen ditugu egoitzan edo egoitza kanpo, skatea sustatzeko gauza oro egiten dugu. ○



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Itumbarría 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA**
IKASTOLA

- Hezkuntza integratua urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

HAPO-RI BURUZ INKESTA EGINGO DUTE

HAPO Herri Antolamendurako Plan Orokorrari buruz galdeketa egiten dabil Berango Eraikitzen herri plataforma abendu honetan, "HAPOri buruz herritarrek daukaten iritzia ezagutzeko helburuagaz". Etxez etxe banatu dute inkesta eta plataformaren webgunean ere eskura daiteke: berangoeraikitzen.blogspot.com. Galderei erantzun ostean plataformari helarazteko hainbat bide dago: postaz (15. zenb. Posta Kutxa, 48640 Berango), blogaren bitartez edo mailez (berangoeraikitzen@hotmail.com) eta bilketa gunera eroanez (abenduaren 24an, 18:00etatik 21:00etara pilotaleku aurrean).

XXI. MENDEKO EUSKALDUNAK LONDRESEN

XXI. Mendeko Euskaldunak argazki erakusketa Londresen dago ikusgai, Oxford Gallery aretoan. Endika eta Ander Basaguren berangoztarren eta Amaia Hormaetxea bilbotarraren lana da. Londresen estreinatu dute baina bide luzea dauka egiteko. Munduko hainbat Euskal Etxek interesa dauka erakusteko: AEBetako Boise hirikoak, Argentinako eta Uruguayko batzuk eta Txinako Shangai hirikoak. Iragana eta egungo euskal usadioak batu dituzte argazkietan: baserria, hiria, jaiak, tradizioak... Erakusketari buruz gehiago jakiteko: www.vascossiglo21.com.



Uuribefm
107.8
Gorliz Irratia

Gabonetan bada giro!
Hamaika ekimen urtea aldatzeko: **Olentzero, pilota txapelketa, haur parkea, e.a.**



Potxin eta Patxin pailazoak

Egitekorik ez da faltako Berangon Gabonetan. Oporrak opor, aspertzeko betarik ez dute izango berangoztarrek. Umeek, nagusiek, denek daukate lekua ospakizunetan.

Oporrak hasi orduko abiatu da Gabonetako 4 eta erdiko Esku Pilota Txapelketa, Zutik Esku Pilota Taldearen ekimenez. Pilotalekuan jokatzeko dabilta partidak. Final laurdenak dira abenduaren 20an eta 22an, eta finalerdiak, abenduaren 27an jokatu dituzte, 19:00etan. Finala, barriz, hilaren 30ean izango da, ordu berean.

Haur parkea ere pilotalekuan kokatuko

dute. Ludoteka, puzgarriak, zezen mekanikoa, tailerrak, denerako tartea egingo dute abenduaren 26an eta 27an, eta urtarrilaren 2an eta 3an. Bitartean hainbat ikuskizun eskainiko dute Santa Anako auditorioan abenduaren 24an, 28an, 29an eta 30ean.

Eta nola ez, Olentzerori harrera egingo diote abenduaren 24an 18:00etan Berango Kultur Etxean. Jarraian kalejira abiatuko da pilotalekuraino. Erregeek ere bisitatu dute Berango urtarrilaren 5ean. Kabalgata egingo dute 19:30etik aurrera. Ekitaldiei eta ikuskizunei buruz zehaztasun gehiago emango dizute kultur etxeetan. ○



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTERO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Kalika Antzerki Taldea > Olentzeroren gutunak

“Aurten Olentzerok opariak banatzen ez baditu, zer?”



Gorka Nagore, Alex Antunez, Aitor Villar eta Ariane Sanz

Urdulizko Kultur Etxean *Olentzeroren gutunak* antzerki lanaren emanaldi bi eskainiko ditu Kalika Antzerki Taldeak, abenduaren 27an, goizeko 10:30ean eta 13:30ean. Gorka Nagorek eta Ariane Sanzek sortu zuten konpainia 2007an umeentzako antzerki-lan hezitzaileak zein nagusientzako ikus-entzunezko piezak sortzeko.

—Zergatik sortu zenuten taldea?

—Deabru Beltzak eta Gaitzerdi taldeetako kideak gara Ariane eta biok (Gorka). 2007an Gorlizetik proposamena heldu zitzaigun, birziklapenaren inguruko antzerki bat sortzeko. Elkarte bezala errolatzea eta taldeagaz aurrera egitea erabaki genuen. Umeentzako antzerki lanak eta adin guztientzako ikus-entzunezko produktuak egiten ditugu.

—Zer kontaktatu duzue *Olentzeroren Gutunak* antzezlanean?

—Umore antzerkia da. Bost pertsonaia ditu: Olentzero (Alex Antunez), Mari Domingi (Iraide Urkiaga), Prakagorria (Aitor Villar), Gonagorria (Ariane Sanz) eta Astotxo txotxongiloa. Olentzero kezkatuta dago ez zaizkiolako ume guztien eskutitzak heltzen; ume askok, arrazoi ezberdinak direla medio (ekonomikoa

«Olentzero Wii kontsolak eta ordenagailuak oparitzeaz nekatu da»

batez ere), ezin dituzte eskutitzak idatzi. Horren aurrean, Olentzerok pentsatzen du: “Aurten opariak banatzen ez badituzte, zer?”. Hori dela eta, hainbat buruhauste sortuko zaizkie pertsonaiei. Umeei erakutsi gura diegu Olentzero nekatuta dagoela Wii kontsolak eta ordenagailuak oparitzeaz; mezua bidaltzen diegu hausnar dezaten. ○

Info+: www.kalikateatro.com



OSABIDE HOR-TZ KLINIKA
Arantza Etxebarria


- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bilbarreri 27, behe eskalera
ALGORTA
94 491 76 96




Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratzialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA



GAVRKO



GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
TF.94 460 70 84



Turikaldai

JOHN GARATE BAYO Neguriko Etorbidia 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI

KOVIETZ GARATE AZULIMENEZ Algorriaren etorb. 4B (Gorria, Jata Mendia) T. 490 01 87 48990 GETXO

Zure publizitatearen hemen zure publizitatea eman Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

GABONETAKO EKINTZAK GOÑI PORTALEN

Gabonak direla eta hainbat ekintza antolatuta dituzte Goñi Portaleko Kultur Etxean. 24an Olenzeroren antzezpina eta kalejira egingo dute 18:45etik aurrera. 29an Barakaldoko PIN Gabon Parkera urteera egingo dute goizean. Hilaren 29an eta 30ean umeentzako parkea egongo da frontoian. Urtarrilaren 6an, Erregeen kabalagata herria zehar ibiliko da 19:45etik aurrera.

TURISMO IRAUNKORRARI BULTZADA BARRIKAN

Barrikako turismo eskaintza iraunkorra bultzatzeko egitasmoa jarri du martxan Udalak. Kurtzio eta Zabaletxeko aztarnategi arkeologikoak, kostako paisaiak eta E-9 GR 123 ibilbidea indartu gura dituzte udalerriko turismo eskaintzaren barruan. Horretarako hainbat ekintza abiarazi dituzte. Alde batetik, turismoari dagokion web-blog-a diseinatu dute. Bestalde, Turismo Euskal Agentziak, Barrika sartu du Euskal Kostaldeko Zuzendaritza eta Surf Euskadi plangintzetan.

ITSASGIZONAREN OROIGARRIA GAZTELERAZ

Abenduaren 6an berrinauguratu zuen Plentziako Udalak Ondarreta ibiltokian kokatuta dagoen itsasgizonaren oroigarria. 20.000 euroko aurrekontua izan du konponketak. Plentziako Ezker Abertzaleak salatu du oroigarriaren plaka gaztekeraz baino ez dutela ipini eta Talde Independenteari lehenbailehen aldatzeko eskatu dio.

MANKOMUNITATEA

2011ko Ekogune ikastaroetan izen-ematea zabalik



Loregintzaren inguruko ikastaroa egingo dute martxo eta apirilean

Uribe Kostako Mankomunitateak 2011ko Ekogune ikastaroen barri eman du; baita, otsail, martxo eta apirileko ikastaroetarako izen-ematea zabaldu ere. Urtarrilaren 14a arte eman ahal izango da izena e-postaz, fax-a bidaliz edo posta arruntez. Ikastaroak doakoak, 18 urtetik gorakoentzat eta Mankomunitateak hartzen dituen herrietan erroldatutakoentzat izango dira. Eskari kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo dute. Onartutakoen zerrenda, 2011ko

urtarrilaren 18an jakinaraziko da. Otsailean, "Aldaxkak eta txertaketak" ikastaroa egingo dute. Martxoan eta apirilean barriz, loregintza eta sendabelarrak landuko dituzte; horrez gain, esperientzia handiagoa dutenentzako aldaxken inguruko ikastaroa eskainiko dute martxoan. Hiruhilekoari amaiera emateko lorategien diseinuari buruzko eskolak emango dituzte apirilean. Ikastaroak Berango eta Sopelan egingo dira. ○

Info+: 94 676 26 74

Abe. 20 - Urt. 28

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Mari Carmen Ruizen akrilikoak.** Algortako kultur etxeko erakustaretoan. Urtarrilaren 8ra arte.
► **Arte Ederretako ikasleak.** Algortako kultur etxeko erakustaretoan. Urtarrilaren 22ra arte.

ZINEMA

LEIOA

► **Campanilla y el gran rescate.** Kultur Leioan. Urtarrilaren 9an, 17:30ean.

GETXO

► **Pluk eta bere garabia.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Urtarrilaren 2an, 17:00etan. 2,10 euro.

ANTZERKIA

SOPELA

► **Olenzeroren gutunak.** Kurtzio Kultur Etxean. Abenduaren 27an, 18:00etan.
► **Ali.** Kurtzio Kultur Etxean. Abenduaren 28an, 19:00etan.

ERANDIO

► **Gari, Montxo eta Joselontxo.** Altzagako azoka zaharrean. Abenduaren 27an, 19:30etan. Doan.
► **Baso sorgindua.** Altzagako azoka zaharrean. Abenduaren 29an, 19:30etan. Doan.
► **Potxin eta Patxin.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Urtarrilaren 2an, 19:30etan. Doan.
► **Aitona Matias.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Urtarrilaren 3an, 19:30etan. Doan.

► **Hitzaldia**
Imanol Murua eta Loiolako hegiak Algortan
Egizu elkartearen Uribe Kostako irakurzaileen txokoa bisitatuko du hil honetan Imanol Murua kazetari eta idazleak. *Loiolako hegiak* saiakera-liburuaz berba egingo dute beragaz. Abenduaren 22an izango da, 20:00etan. Egizuk solasaldian parte hartzera animatu ditu irakurleak eta liburuari buruz gehiago jakin gura duten danak. Abenduaren 22an ipini dute hitzordua, eguaztena, Algortako Aldai Patronatuan, 20:00etan. Imanol Muruak ibilbide luzea egin du kazetaritzan, Argia, Egunkaria, Jakin edota Berria ibili da. *Loiolako hegiak* liburua idatzi du, 2006an EAJk, Batasunak eta PSE-EEK Loiolan (Azpeitia) egindako elkarrizketa politikoei buruz.

• **Non:** Algortako Aldai Patronatuan • **Noiz:** Abenduak 22, eguaztena

BERANGO

► **Potxin eta Patxin pailazoak.** Santa Ana auditorioan. Abenduaren 29an, 19:00etan.
► **Kiki, Koko eta Moko pailazoak.** Santa Ana auditorioan. Abenduaren 30ean, 19:00etan.

GETXO

► **La gotera de la azotea.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Abenduaren 27an, 18:00etan. 4 euro.
► **Olenzeroren gutunak.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Abenduaren 29an, 18:00etan. 4 euro.

LEIOA

► **Ogro txikia.** Kultur Leioan. Urtarrilaren 16an.

MUSIKA

GETXO

► **Zodiacs.** Areetako El Comercio kafean. Abenduaren 23an, 20:00etan. Doan.
► **Mayor Reisman.** Romoko West Side Bar tabernan. Urtarrilaren 13an, 20:00etan. Doan.

► **Celsius32.** Algortako The Piper's Irish Puben. Urtarrilaren 20an, 20:00etan. Doan.
► **Peter Abels.** Areetako Glass Kafean. Urtarrilaren 27an, 20:00etan. Doan.

ERANDIO

► **Gabonetako kontzertuak.** San Lorentzo elizan. Abenduaren 27tik 29ra, 20:00etan. Doan.

LEIOA

► **Orpheo Ganbera Abesbatza.** Kultur Leioan. Urtarrilaren 8an, 20:00etan.
► **Bluesnight: Travellin' Brothers eta Mingo Balaguer.** Kultur Leioan. Urtarrilaren 21ean.
► **AUTEclassic: Joan Isaac eta Luis Eduardo Aute.** Kultur Leioan. Urtarrilaren 28an.

BESTEAK

LEIOA

► **Estalitato izotz-pista.** Errekalde plazan urtarrilaren 9ra arte.

PLENTZIA

► **Ikasteko gela.** Goñi Portalen. Abenduaren 26an eta urtarileko zapatu eta domekatar, 10:00etatik 14:00etara.
► **Urteera Barakaldoko Gabon Parkera.** Abenduaren 29an, 09:30etik 19:30era.
► **Haur Parkea.** Pilotalekuan. Abenduaren 29an eta 30ean.

GORLIZ

► **Zaldi lasterketak hondartzan.** Abenduaren 26an.
► **Haur Parkea.** Pilotalekuan. Abenduaren 27an eta 29an, eta urtarrilaren 3an eta 4an.

URDULIZ

► **Gabonetako udalekuak.** Abenduaren 27tik urtarrilaren 5era.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Giro ederra!

Giro ederra izan zen Sopelako basiliza eta Barrikako eliza inguruan, azaroaren 30ean, Ander Deuna egunean. Sasoian daudela erakutsi zuten bertara hurreratutako gizon-emakumeek; izan ere, egitarauaren barruan zeuden bertsolariak, meza, aurrekua eta luntxaz gain, bat-bateko dantza erakustaldi ederra antolatu zen. Ohitura zaharrei gogor eusteko indarrez daudela erakutsi zuten!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Industriaren itzulera

Axpen

Erandioko Axpe aldean industria-nabea eraiki dute, irudian ikus dezakezunez. Gainera, duela gutxi jakinarazi dute Asua erreka aldea industrialdea egingo dutela Zorrozaurreko enpresak eta lantegiak birkokatzeke. Industriaren itzulera ote? Ibaizabalen altzoan industria modu barriak sortzen ote? Gauzak horrela, ez dirudi industriaren goren aldiko egoera, oraingoa industria garbia baita, nabe honen fatxadari dagokionez behintzat.

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Josune Muñoz (Bilbo, 1967) euskal filologoa da ikasketaz, baina prestakuntza-jarduera feministak eta literarioak egin dute ezagun. Literatura zerbitzuak eskaintzen dituen *Skolastika* sortu zuen 2003an, emakume literatura batu, ikertu, landu, eztabaidatu eta irakasteko bitarteko, dokumentazio gune eta liburutegia. Horren gaineko ikastaro andana eskaintzen ditu, zenbait Getxoko Jabekuntza Eskolako jardueretan ere, gitxi batzuk hauek: “Emakumeen literaturaren historia”, “Emakumeok eta euskal literatura”, “Munduko emakumeen literatura” e.a. Azken aldian komikiari hurbildu zaio literatur kritikaria, emakumeen komikiari, zeri bestela. “Sareinak, feminismo literarioa” web orriko kide ere bada. Ahaztu barik, ama eta etxeakoandrea.

Josune Muñoz

emetasun begiz eta argiz

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—90. hamarkadan abiatu zen hainbat herrialdetan emakumeen literatura ba ete dagoen eztabaida. Zertan dago?

—Gero eta gehiago onartzen da existitzen dela. Orain dagoen eztabaida da ea literatura maskulinoa existitzen den ala ez euskal literaturan. Neuk diot: ea, aurreko eztabaidan emakumeen literaturarik ez dagoela erabaki zen, literatura ona ala txarra bakarrik dagoela; orain justu kontrakoa, ea literatura maskulinoa existitzen den. Horrek segituan suposatzen du femeninoa ere badela, ezta? Euskal Herriko eztabaidak benetan harrizten nau! Oso kuriooa da herri honetan gai horregaz gertatzen dena!

—Hori da eztabaida gurerara heltzean, aho batez, andrazkoek, ezetz erantzun zuten.

—Ez zuten onartzen emakumeen literaturarik. Gertatu zena izan zen, kontuak hamarkada osoa zeramala ezbaian hortik, eta ordurako entzun zen emakumeen literatura berdin bigarren mailako literatura zelako kontua; orduan Euskal Herrira heldu zenerako bazuen mespretxuzko kutsu, esanahi eta fama hori. Noski, beraiek ezetz esan zuten mespretxu hori ez zutelako soinean era-

man nahi, hortik ere badoa kontua. Baina, uste dut gero eta... Hamarkada hauetan *Sareinak* eta hainbat egitasmo feminista jarri dira martxan, gehiago eztabaidatu da... Halere, uste dut, oraindik, ez dela ondo eztabaidatu, sakonki eztabaidatu barik dagoela; eta espero dut, bigarren aldi honetan ondo aztertzea, eztabaidatzea... Badiotsuet, honetan seguruenik eztabaida emongo da, gizonezkoek partehartze horretan interesa azaldu dutelako, literatura maskulino bat defenditzeko; flipa egiten dut, baina...

“Sistema oso matxista dugu, urtetan esan dut eta eta esaten jarraituko dut”

—Emakume literatura badela defendatzen dutenetakoa zara; zer bereizgarri ditu?

—Jakina! Batetik ahozkotasanaren garrantzi handiagoa; literatura bere kontzeptuan hartzeko beste zera bat, literatura bera zer den, liburuak idaztea baino askoz gehiago dela konturatzea eta, bide ezberdinetatik ibiltzea, “literata” izatea, ez bakarrik idazlea (nik egiten dudana adib.); bestetik, liburu-

etara joz, gaiak lantzeko sentsibilitatea, gai berezi batzuk agertzeko... erraztasuna, ugaritasuna edo sentikortasuna. Demagun: amatasuna, alabatasuna, ahiztasuna e.a.; pertsonaiak tratatzeko modua ere bai. Adi! Neuk ez dut esaten emakume guztiek emakume literatura egiten dutenik, ezta ere gizonak ezin dutela hori idatzi, kontuz! Nik diodana da badagoela sentsibilitate bat genero batzuetara jotzeko, agian ohitura... Are gehiago Mendebaldetik kanpora, nabariagoa da hori Afrikan, Indian...

—Autobiografia islatzeko joera ere...

—Bai, autobiografien edota autobiografia lagunduen garrantzia ere; emakumeek era batean egiten dute literatura, literatura osoa zein generoak, liburuak, baita gaiak ere. Neuk hori defenditzen dut, urteak eta urteak daramatzat hori erakusten eta irakasten.

—Emakume literatura, literatura feminista; alkarren alboan ala gurata alkar lotuak?





ARRIGUNAGA, 2010

Getxoz blai

Itsasoagaz eta uragaz lotutako irudiak dakarzkigu Mikel Martinez argazkilariak. Bilbon jaio zen Martinez, baina ia beti bizi izan da Algortan; auzoan ezaguna da oso, UK-ko aspaldiko kolaboratzailea da eta ospetsuak dira jaietako bere argazkiak. Orriotako irudi sorta Getxokoa da, argazkilariak dioenez, ez baitu inora joan behar argazki zoragarriak egiteko, “*Getxon badago zer erretratatu*”. Martinez Egin egunkarian hasi zen profesional moduan, Euskaldunon Egunkariarako, UK-rako eta beste argitalpen askotarako ere egin du makina bat argazki. Gaur egun *freelance* dabil.

Argazkiak: **Mikel Martinez**



ARRIGUNAGA, 2008



SAN NIKOLASEKO KIOSKOA (GETXO), 2010



TOLETE; ARRILUZE, 2009



PORTU ZAHARRA, 2008



PORTU ZAHARRA, 2008



PORTU ZAHARRA, 2008



PORTU ZAHARRA, 2008



FADURA, 2008



NEGURI, 2010




PORTU ZAHARRA, 2008



ALEMAN ETXEA, 2006



PORTU ZAHARRA, 2008



BIZKAIKO ZUBIA, 2003



PASIENSA; PORTU ZAHARRA, 2010



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezikuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik, Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leloako ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

[zinema]

Saritutako filmak

Leioako Film Laburren lehiaketarako ia ehun lan jaso dituzte, 3 baino ez euskaraz



Aurtengo kartela. info+: www.kulturleioa.com

Leioako Film Laburren XVII. Lehiaketak 98 lan jaso ditu aurton, eta horietatik 3 baino ez dira izan euskarazkoak. Gehienez 15 minutuko iraupena izan behar duten lanotan Begoña Vicario Calvo, Mikel Arce Sagarduy, Rafael Calderon Blanco, Juan Crego Moran eta Jesus Maria Mateos Urbinak osatu duten aurtengo epaimahaiak kalitate artistikoa, sormena, originaltasuna, maila teknikoa, produkzioa eta kontzeptua aztertu ditu film irabazleak aukeratzeko edo izendatzeko.

Hala, sari banaketako ekitaldia hil hasieran egin zuten, abenduaren 11n hain zuzen, eta ondorengo lanak eta egileak jo zituen lehiaketako epaimahaiak sarigarritzat: alde batetik, euskarazko film labur onenari 1. saria (1.000 euro eta diploma) Angel Aldarondoren (Donostia, 1975) *Ondar aboak* lanarentzat izan da, aukeratzeko gitxi egon arren, aurten emotea erabaki dute epai-

«Herriko lan onenari saria Aimar Ruizen *Uria (La Ciudad)* lanak lortu du»

leek eta sariemoileek, izan ere kalitate nahikorik ez zutela irizita aurreko urteren batean emon barik uztea erabaki zuten; bestetik, gaztelerazko film labur onenari 1. saria (1.000 euro eta diploma) Isabel Hergueraren (Donostia, 1961) *Amar* lanak jaso du, eta 2. saria (700 euro eta diploma) Kote Camachoren (Oiartzun, 1980) *La gran carretera* film laburrak lortu du; azkenik, Herriko egileen artean lanik onena (saritzat 400 euro eta diploma jaso dituen) Aimar Ruiz Saenz leiozarraren *Uria (La ciudad)* filma aukeratu dute. Saridun lanak ikusteko aukera ere egongo da zine-forumaren programazioaren barruan, Kultur Leioako Auditoriumen urtarrian. ○

Flamenkoa euskaraz

Badaukat laukote getxoztarrak *Minus bat* estreinako lana kalean dauka



Badaukat laukote getxoztarra

Leire Lazaren eta Monika Vicarioren aho-tsakaz batera Pepe Herediaren eta Josu Doncelen gitarrak berrari bere orrialdeotara dakarguz, oraingoan Badaukat taldea osatu dute-eta. Heredia irakaslearen eskolatan alkar ezagutu eta taldea sortzeko ideia gauzatu du laukote getxoztarrak, eta urtebete inguruko epean prestatutako lehenengo emaria aurkeztu barri dute, *Minus bat* diskoa. Lana hamabi abestiz osatzeko asmoa zuten hasieran, baina 11 izan dira azkenean, eta horrek emon dio diskoari izena. Estiloari dagokionez, Heredia tartean ibilita ez da harrizkoa,

flamenkoa da nagusi, rumba ere nabarmentzen da, eta folk eta pop doinuak ere badira. Musikari euskarazko berbak, hiru abestitarako izan ezik (Herediak egin dituelako), Lazak ipini dizkio; oro har, bizitzako sentimenduen eta eguneroko gertaeren gainekoak dira, eta euren sareko gunetxoan ipini dituzte irakurgai.

Zuzeneko emanaldiei dagokionez urte barrirako Getxo, Bilbo baita Euskal Herriko kanpo ere eroango dituen bira prestatzen dabilta. ○

info+: www.badaukat.blogspot.com
Harremanetarako: 627 656 423

MobyDick > Villa-n hirugarren

XXII. Bilbao Hiria Lehiaketako Pop-Rock atalean 3. postua lortu zuen Eneko Burzako, MobyDick bakarlarri algortarrak. *Villa*-ren historian Pop-Rockeko finalera bakarlarri bat heltzen den lehenengo aldia izan da hau. 3. postua lortzeak 1.700 euroko saria dakar, baina horrez gainera lehiaketako Abeslari Onenari saria ere (12 kanaletako nahasketa-mahaia) lortu du MobyDick-ek. Bere zuzenekoagaz gozatzeko aukera egongo da hilaren 30ean Laiak tabernan (Sopela). Pop-Rockeko irabazleak The Riff Truckers gernikarrak izan dira, 2. postua Yellow Big Machine bilbotarrentzat izan da. Metalean Gamora gipuzkorrak izan dira garaile eta Beste joerak atalekoak Okkernoot holandarrak.

disko-liburua > Ornitorinkus

Lau urteotako bidearen "erregistro moduko bat" plazaratu dute Ornitorinkus egitasmoa osatzen duten Maialen Lujanbiok (ahotsa eta berbak), Judith Monterok (saxofoia) eta Xabier Erkiziak (elektronika eta zaratak). "*Ornitorinkus musika garaikideak, elektronikak eta bertsoak elkar hartuta osaturiko hotsen eta ahotzen emanaldia da, performance-aren, kontzertuaren eta happening-aren artean kokatzen dena*", eta horren lekuko da *Ornitorinkus* (autoekoizpena) lehenengo lan luzea. 12 piezak osatutako disko-liburuxkaren diseinua X. Gantzarainek eta E. Aristik egin dute, marrazkiak Jose Belmontek, eta Lujanbioren bertso eta testuez gainera, Jakoba Errekondo, Joseba Sarrionandia, Xabier Erkizia eta Ixiar Rozasen idatziak ere batzen ditu.

info+: www.ornitorinkus.org

diskoak

Denak ez du balio
Berri Txarrak
GOR



Denak ez du balio: Singles 1997-2007 izenburua ipini diote leitzarrek azken lanari. GOR diskoetxean igaro 10 urteak laburbildu dituzte lan honetan. CD eta DVD banak osatzen dute. CDak 20 abesti batzen du, tartean deskatalogatuta edota aurkitzeko zailak direnak. DVDak *Zertarako Amestu* dokumentala jasotzen du, 2007an argitaratutakoa.

Herria
Kepa Junkera
Warner Music



Abeslari erdaldunek abesten dituzten euskal tradizioko kantuen trilogia itxi du *Herria* disko honek Kepa Junkera bilbotarrak. Lehen bi lanetan Iberiar Penintsulako eta Ameriketako abeslari latindarrak aukeratu zituen, oraingoan AEBetako, Madagaskarreko, Greziako eta Koreako folk abeslariak ekarri ditu kantura.

XXI. Mendeko piratak
Zain
Baga Biga



Gaztea irratian XIX. Maketa Lehiaketaren irabazlearen lehen diskoa da XXI. Mendeko piratak. Berrizko taldeak hainbat laguntzaile eduki du diskoko kantak osatzeko, tartean, Etxe, Keike taldeko Nerea Sanchez, Tres41 taldeko *Mikel Puro* eta Javi Pineda. Punk, rock eta pop estiloak nahasten dituzte eta duela bost urte sortu zuten taldea, 2006ko neguan.



- **Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa**
- **Ikaskuntzaren zailtasunak**
(Idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- **Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza**

Basarrate 20 Ionia 48991 (Alqorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

etorri
eta
ikus!!

ORIXA

liburudenda

Alargente 8. Erdialdeko Alargente herri
17. 00. 000 00 00
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Teléfono 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Itzulpen saltsa goxoa


Marcel Proust, Victor Hugo eta Paul Austerren lanak euskaraz

Krisiaren izarapean aurkeztutako aurtengo Durangoko Azoka ere joan zen hil hasieran. Salmahaietan aurkeztutako 505 nobedadeetatik 339 orrialdedunak izan ziren, eta gaurkoan, mahaigain hartan ipinitako lapikoko behar-beharrezko osagai bano, ezinbesteko osagarrietan paratuko dugu begirada, itzulpenetan; horietako batzuen gomendioa egin asmoz orrialdeotara ekarriz.

Alde batetik, Literatura Unibertsala bilduma osatze aldera euskaratu diren askoentzat literaturaren maisulan bi: Marcel Proust idazle frantsesaren *À La recherche du temps perdu* eta, ezagutzen denaren arabera, Fernando de Rojas es-

«Denbora galduaren bila, Zelestina, Kondenatu baten azken egunak, Sunset Park»

painiarrak behintzat amaitu zuen *Zelestina*. Lehenengoa, XX. mende hasieran plazaratutako zazpi eleberrik osatutako lanaren lehenengo alea da, *Denbora galduaren bila* izenburupean Joxe Austin Arrietak itzuli duena. Bigarrena, lan horretaz dauden bertsio bien artean, 1502. urtekoa, «kanonikotzat» jotzen dena da Joxe Antonio Sarasolak euskaratu duena. Biak ala biak, Literatura Unibertsala bil-



Marcel Proust

dumako lanak argitaratzeaz arduratzen diren Alberdania eta Elkar etxeek plazaratu dituzte. Azken boladako itzulpen lanean ere, aipagarria da, Juan Mari Agirreurretak euskarara ekarritako Victor Hugoren *Kondenatu baten azken egunak*, berori ere Elkarrek argitaratua.

Bestetik, Alberdainak ere, arlo honetara beste ekarpen bat egin du oraintsu, Paul Auster idazle estatubatuarren azkeneko nobela, *Sunset Park*, hain zuzen ere. haren aurreko lau liburuak legez, Oskar Aranek itzuli du. Eta barriro ere, beste hizkuntzetako itzulpenen aldiberekotasunagaz heldu da euskarazkoa ere. ○

liburuak



Errotik
Gotzon Barandiaran
Susa

Bilboko Euskalduna ontziolako langile giroan kokatu du Barandiaranek bere lehenengo eleberria. Langile borroka, mendekua eta familia loturak lantzen ditu Luis eta Lorea aita-alabaren berbaldien bitartez. Luisek, beharra galdu barri du eta minbizia dauka; Loreak mina du bihotzean.



3 Mariak
Arantza Urretabizkaia
Erein

Zahartzaroaren gaineko hausnarketa. Zahartzaroa sentitzeko eta bizitzeko hainbat modu dago eta horiek islatu gura izan ditu Urretabizkaia oraingoan. Bizitzaren azkeneko urteetan, grina galdu eta bizi-raun besterik ez dela egiten uste du askok.

[kirola]

Euskal Makila Jokoa (II)

Bizkaiko datu apurrak, makila motak eta jokoaren, borroka ala kirola, zehaztapenak



Otsaileko ikastaroaren barri, info+: 656 798 622. Harremanetarako: joseignacio.gamboa@ehu.es

Aurrekoan agindu legez, buskentzak ordaintan, Iñaki Ganboak euskal makila jokoaz azaldutako beste hainbat kontu, ostean:

Ganboaren Bizkaiko datu bakarrenetako Markina-Xemein aldekoa da, «XIX. mende bukaera aldekoa, San Migelgo ermitan erromeria egiten zen inailean, eta bertan desafioak, borroka izaten ei ziren auzoen artean; makilari oso abilak bazirela. Beste leku batzuetara ere zabaldua egongo zen, baina ez dut gehiagorik jaso... Beno, Gernika aldeko besteren bat». Bestalde, euskal makilarena borroka edo jokoa den, Ganboak azaldu duenez: «berrez izena «makil jokoa» da, baina jokoa-ren garai hartako adiera ez zen jolas, abildadea zen, makilarekin jokatzen zuena makilarekin trebezia zuena zen. Makila borrokarako erabiltzen zen; ez zen kirola. Guk teknika erakusten dugu, zertanako den? Geure burua babesteko eta min emateko, helburu horrekin sortu zen oinarrian; eta teknika erakusten dut den bezala. Kirola egin behar badugu teknika aldatu egin behar dugu, asko; jada ez da makila jokoa! Kirolanaztea litzateke, eta ez zait asko gustatzen. Noski gaur egun ez dugu borrokarako erabiliko, horrek gaurko gizartean zentzu-

rik ez dauka; baina teknika gordetzen dugu garai batean zen bezala; gutxi gorabehera, baikoitzak bere kutsua ematen diolako, norbere ezaugarri fisikoengatik...». Jakinarazi duenez, «sekula ez dugu izan istripu larriegirik, atzamarretan kolperen bat... Getxon 4 orduz egon ginen eta inork ez zuen minik hartu. Nik uste futboleko jokatzean arrisku askoz handiagoa hartzen dugula makilan ibiltzean baino!».

3-4 makila mota zeudela ondorioztatu

«Hiru makila mota zeuden, oraintsuko datuen arabera laugarren bat ere bai»

du: bata, guk darabilguna, altuera normaleko batentzat, 1,30-50 cm-koa; beste bat agintemakila edo Iparraldean ibiltzen dena, 90 cm ingurukoa, kanakoa; paseatzeko erabiltzeko modukoa; hirugarrena, txikia, 30-35 cm-koa, arropa artean ezkutatuta eramaten zena, hurbiletik borrokatzeko; eta oraintsuko datuen arabera, pertsonaren altuera gutxi gora-behera 20 cm-tan pasatzen zuena, bi eskuekin erditik hartuta erabiltzen zena.

Gogoratu, otsailean barriro Getxon ikastaroa antolatzeke asmoa dutela. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA
KIROL moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasu 18 · ALGORTA

Jesus Sustatxa eta Luis Gomez > Loiuri buruzko filmaren egileak

“Loiu izan dena bildu eta nabarmendu gura dugu dokumentalean”

Loiu erabat aldatu da azken 30 urteotan, lehen baserriak eta landak zeuden lekuan txaletak eta aireportua daude egun. Herriko usadioak biltzen dituen dokumentala prestatzen dabilta Jesus Sustatxa (J) eta Luis Gomez (L). Euskal Herriko ohiturak gordetzeko saiakeran hainbat herritan sortu dira antzeko egitasmoak eta Loiuun ere, Getxon legez, akordaten dira...

—Loiuri buruz dokumentala egiten zabilzate.

—(J) Batetik, herriko historiak batzen gabiltza, adineko herritarrekaz berba eginez; umetako kontuak kontatzen dizkigute. Bestetik, Loitutik kanpora ezagunak diren herritarrak elkarrizketatu ditugu: Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusi ohia, Iraia Iturregi futbolaria eta Aitor Larrazabal futbolari ohia, e.a.; Loiuako bizipenak kontatu dizkigute. Azkenik, desagertzen ari diren herriko usadioak grabatu ditugu eta elkarrizketak egin dizkiegu protagonistei: arto-erreketa irina egiteko, txarriboda, e.a.

—Herriko historia iraurazteko?

—(J) Bai, izan ere, Loiu guztiz aldatu da azken 30 urteotan, baserri asko eraitsi eta txaletak eraiki dituzte; herriko bizitza sozialean eta laborean aldaketa eragin du. Herria izan dena bildu eta nabarmendu gura dugu. Loiuri buruzko abestia ere sortu dugu. San Pedro elizako koruak grabatuko du eta dokumentalean txertatuko dugu. Loiuri buruz berba egiten du, geografiari eta ohiturei buruz; herria zer zen eta gaur egun zer den azaltzen du. Datorren urtean kaleratuko dugu.



Datorren urtean prest edukiko dute dokumentala

—Nola otu zitzaizuen filma egitea?

—(J) Luisek 40 urte daroa herriko jaietan grabaketak egiten. Bestalde, argazkiak ere bildu ditugu etxez etxe eta erakusketa egin genuen eskolako ikasle ohien bilkuran. Erakutsi genituen 300, baina askoz gehiago dauzkagu; argazki batzuk duela 100 urtekoak dira. Arrakasta handia izan

—(J) Grabaketa horiek elizan jartzen ziren antzina. Luisek urte asko daroa honetan, ni duela urte bi hasi naiz artxi-boan gordetako grabaketak berreskuratzen, eta orain, forma ematen eta musika jartzen gabiltza.

—(L) Grabaketa laburrak dira eta gaur egungo grabaketakaz nahasten gabiltza,

“Liburu bat ere egingo dugu, pasarte, historia eta argazkiak; datorren urtean hasiko dugu”

du ekimenak eta argazki gehiago ekartzen ari dira. Euskarri digitalean gorde ditugu, guztien eskura. Eta horretaz gain, liburua egingo dugu pasarte, historia eta argazki horiek biltzeko. Datorren urtean hasiko dugu.

—Gainera, 40 urtetako grabaketak beste filmetan gordetzen zabilzate.

gaika: jaiak, Olentzero, e.a. Dagoeneko bederatzi film atera dira.

—Beraz, dokumentala aparte da?

—(J) Bai. Galtzen ari diren usadioak, pasarteak eta herriko historiaren jazoera garrantzitsuak gorde gura ditugu. Zatitxoak hartu, bildu eta historia birpasa. Loiu izan dena gorde gura dugu. ○

Fredi Paia

Gabon-mukurre

Urteko egunik laburrenak eta gabarik luzeenak dira abendu edo *ihulekoak*. Lehengoan azaldu neutsuen zergatik esaten den argia Santa Luziatik aurrera, abenduaren 13tik aurrera luzatzen hasten dela. Egun, ostera, Erdi Aroan egutegia zuzendu ostean, Egubari edo *Natibitate* egunetik aurrera hasten da barriro argia luzatzen.

Kalentura kontsumistak geroz eta lehenago marketan dau, kaleetako argien bidez, gabonen hasikerea. Antxina San Nikolas egunak, oraindino Algortan hainbat jentek ospatuten dauana, esaten eban noz hasten zan neguko solstizio zikloa. Espainiar konstituzinoa egun beratan ipinteak, ostera, guztiz itxuraldatu dau lehenagoko jai.

Abenduaren zortzia txarri hiltzeko egun seinalatua izaten zan etxe askotan. Eta Vladimir Propp, herri literaturaren azterlari errusiarrak dinoanari aditu ezker, Europa osoan erritu garrantzitsua zan. XX. mendeko Uribe Kostan, ostera, ez dago horrenbeste esateko zantzu kulturalik.

Bizkaiko hainbat herritan solstizioa baino bederatzi egun lehenago hasten zan Egu barriaren, argi barriaren edo kristau erlijioan Jesusen jaiotzaren barri emoten. *Marijesi* edo *Abenduak* izeneko koplak sortak abesten dira oraindino bere Iurreta, Lekeitio, Muxika, Gernika, Busturia...eta makinatxu bat herritan. Makilak eskutan hartuta abesten dira, Santa Ageda bezperan legetxe, eta etxerik etxe joaten dira kantariak solstizioaren aurreko bederatzi egunetan. Gure eskualdeko edadekoek, ostera, ez deuskue halako ohituren barri emon.

Ziklo aldaketa guztiek lau eguneko moltzo bat osatzen dabe. Josu Naberan, euskal kulturaren ikerlari nekazinar, *labururen-bata>larunbata* berbagaz lotzen ditu lau egunetako moltzo hauek. Izan bere, solstizio berbak eguzkiak lo egiten dauan egunak esan gura dau. Abenduaren 21a da urteko egunik laburrena, eta argiaren irau-



Elortegiena baserria Basorda inguruan

pena berbera da hurrengo lau egunetan, 25ean zikloa aldatu eta eguna barriro luzatzen hasten dan arte.

“San Tomas egunak baditu antxinako urteko azken eguna izateko zantzu kultural batzuk”

Abenduaren 21a, San Tomas eguna da, baditu antxinako urteko azken eguna izateko zantzu kultural batzuk. Esaterako, erren-tadore ziran, edo baserri alogorean bizi ziran familiantzat, egun hori izaten zan urte osoko errenta ordaintzeko hautatua. Horregatik, euretariko asko Bilbora joiazan. Bertan egozan etxeetako jaube aberatsak, urteko errenta ordaindu eta bazkari bat jasotzen eben trukean.

Abenduaren 24a etxeko hildakoakaz

lotuta dago eta gaba berezia da, indar magikoa daukien errituak egiteko unea. *Gabon-mukurre* batzen zan eguerdian, haretx lodia izaten zana gehienetan, gaba osoan sutan mantendu behar zan enbor mardula. Lemoizeko Marutxeaga edo Basordaportu auzoan aurkitu dogu bizien ohitura hau. Julio Caro Barojak ipar Europako gabonetako zuhaitzen errituakaz lotzen dau.

Gabon gabeko beste ohitura bat *ogi saluadore* da. Etxeko andrarik zaharrenak etxeko defuntuen aldeko errezua egin ostean mahaiko guztiek mosu emoten eutsien ogiari, kurtze bat egin eta kurruskua, ebagi ostean, mantel azpian eukiten zan. Urte osoan gordetzen zan ogia eta ez zan urdinduten. Hurrengo urtean etxeko txakurrari emoten jakon amorrotu ez eiten. Ohitura bera existitzen zan antxinako Egipton eta monastegi Koptoetan egiteari jarraitu eutsien Islama sartu zan arte. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

 <p>Portu Zaharra kalea 35 48971 Algorta - Getxo (Bizkaia) Tel. 94 460 20 33 portuzaharra@portuzaharra.com www.portuzaharra.com</p>	 <p>Eguneko menua Jatetxea Karta Asteburuko menua Oilasko erretegia</p> <p>Sarritsu azote 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tel. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restauratesolaetxe.com</p>
--	---

 <p>Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07</p>	 <p>Hanburgesak Ogitartekoak Sanwichak Plater konbinatuak</p> <p>SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)</p>
--	---

 <p>Mariandresena 1, Algorta</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
---	-------------------------------	-------------------------------

<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan: 94 491 13 37 publiuk@aldizkaria.biz</p>
-------------------------------	-------------------------------	---

<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
-------------------------------	-------------------------------	-------------------------------

[gaurko aukera]

UK taberna

Herrian girorik ez? Egon ez!



Mou eta Piña, Algortako Mariandresena kalean dagoen UK tabernan

Azaroan ospatu zuen Algortako UK tabernak 5. urteurrena. Gaztea denez gero, sasoiko dabil oraindino eta herriko giroaren sua bero mantentzeko indarra daukala erakutsi du. Mikel Piñeiro *Piña* eta Oihan Morages *Mou* tabernariak, gosariak prestatzeaz zein asteburuetako gauetan parrandazaleei babesa emateaz arduratzen dira.

Goizeko 11:00etan zabaltzen ditu atea UK tabernak. Kirol emanaldiak, koktel dastatzeak, jai tematikoak... tabernari bizia emateko hainbat ekimen antolatu duze azken urtean. Musikak ere garrantzi handia du; talde euskaldunen zein kanpoko taldeen musika eskaintza etenbako entzuteko aukera emateaz gain, eguenetan, kontzertuak antolatzen dituzte, estilo eta publiko anitzari zuzen-

duak. Gazteek sortutako proiektuei eta inguruko musika taldeei bultzadaxoa emateko, Uribe Kostako musikarien lanak dituzte salgai: Draa, Erasoka, Mobydick, No Drama, Konter e.a. Urtarrilaren 7an eta 8an Zizurren (Nafarroa) egingo den Hatortxu Rock musika jaialdirako sarrerak ere badituzte.

Ordutegi murrizketek zein arategi zorrotzek ostalariak estutzen jarraitzen badute ere, gauzak egiteko gogoz dabil-tza UKn. Lagunentzat ez dago aurkezpen beharrik eta ezagutzen ez duzuenontzat urte zaharrari agur esateko zein datorren barria irribarrez eta lagun artean agurtzeko txokoa baduzue Mariandresenan! Urte barri on! o

Mariandresena 1, ALGORTA
Tf. 94 602 29 24



Artaza Etxea
JATETXEA

- gosariak
- txuletoa
- bakailoa
- arrain freskoa

astebaruetan bazkari eta afariak entzuzuz.

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Euzkara - Gabele erakundearen arriano • LEIOA



BASTARTE

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128




Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!

Alangoharri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arlazo s.p. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Frisurik lehenak - Aldizkariak - Litzonariak
Orduña Mendatea 1 Teltokia 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 450 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 fm

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zorionak eta... urte barri on! Uraren menpean jaiotakoentzako zoriona dobla hil honetan: urtebetetzea eta urte barria. Hainbeste ospakizuni aurre egiteko indarrez?

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Olentzerori eskatuko dizkiozu opariak, betiko legez, baina Papa Noel zelatan ibiliko da aurrea hartu guran. Tximinia hormatu beharko duzu etxera sartzerik gura ez baduzu...

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Hilabete daroazu turroia jaten, Gabonetan janariz lepo egongo zaren aitzakiagaz. Urte barriaren ostein eskaintza bereziak izango dira aitzakia, azkenean beti turroia jaten...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Argiak, erosketak, panpinak, eta abar leku guztietan. Zer, daborduko Gabonakaz nazkatuta? Hau hasi baino ez da egin, har egizu arnasa eta ehun arte zenbatu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Azkenean lortu duzu, aurtan Karibe aldean igaroko duzu gabonzahar eguna. Kontuz ibil zaitez, hainbeste mojito edan ostein itsasoan ito gura ez baduzu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Dagoeneko pentsatu dituzu urte barrirako asmoak: erretzeari utzi, kirola egin, osasuntsu jan, e.a. Lasai, ez duzu idatzi behar gogoratzeke, iazko zerrenda bera da eta.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Gorbeia mendia igoko duzu gabon zahar egunean, eta paisaiagaz liluratuta, bertan igaroko duzu gaua. Otsa agertu eta bere afari ez bihurtzeko, akabatu beharko duzu; afari ederra egingo duzu!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Oker baino okerrako jokatu duzunez, Olentzerok ez ditu oparirik utziko 24ko gauan. Erreegi dei egingo diezu, baina horiek ez dira oso onak eta ikatza utziko dizute.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Durangoko azokan pila bat liburu erosi duzu, baina oraindino poltsan sartuta daukazu. Gabonetan opari zenitzake, diru gehiago xahutu beharrean, zuk baino hobeto aprobetxatuko dituzte eta.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Gabonetako kotilloi batera joango zara, jantzi garestiagaz eta ilea apainduta. Aspertuko zara aberaskumeakaz eta herriko tabernetan amaituko duzu; ederto ibiliko zara, jantzia urratzeraino.

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Ikasleek a zer bizitza! Baina irakasleek ere, ez darabilte makala! Oporretan, beti oporretan... Ez zaitez itzuli urtarrilean estresa gora eta behera, lagunengandik egurra jaso gura ez baduzu behintzat.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Opari asko jasoko duzu Gabonetan, bapo jarriko zara jan eta jan, edan eta edan. Egun zoriontsuak izango dira zuretzat eta ederto ibiliko zara. Ez zaitez ardura, bihar biharkoak...



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.


Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

LABIRINTOA

BI BAKARRIK DIRA BERDINAK



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nor da 2010eko azken zenbakiko Fotografia ataleko argazkilaria?

> Aurrekoaren erantzuna: Azaro Kulturala

> Irabazlea: **Xabier Angulo***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Nor etorriko da Uribe Kostako etxeetara abenduaren 24an?

- **Pirritx**
- **Olentzero**
- **Txiribiton**

> Aurrekoaren erantzuna: Surfa

> Irabazlea: **Eneko Gisasola***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



BILBAO-AGIRRE FAMILIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXOZTAR ESNE-SALTZAILEAK, 1941

Getxoko Andra Mari elizatekoak dituzu guztiak, Maidagan estratan ateratako argazkikoak. Hemen ikusten dena, gaur egun desagertuta dago (Maidaganbarri etxea orain urte batzuk bota zuten). Beraien atzean dauden andreak mantila (garai hartan andrazkoek elizan egoteko jartzen zuten ilearen gaineko zapia) daramate; beraz, jai eguna izango zen. Esnea gehienbat Algortan saltzen zuten eta batzuek baita Negurin ere. Eta ez esnea bakarrik; ortuariak ere saltzen zituzten, udan batez ere. Astoaren laguntza erosleek etxeraino heltzen zen, baina gero... igogailurik ez; ondorioz, guzti-guztia (esnea marmitan, litroka neurtzeko tankea, zerbait gehiago saltzeko...) norberak eroan behar aldean eskailerak gora eta behera. ○

Izenak: Marilu Bilbao (Moreaga baserrikoa), Dolores Maestro (GB) (Palazio baserrikoa), Pili Bilbao (Diliz baserrikoa), Felisa Bilbao (Moreaga baserrikoa), Juanita Ugarte(GB) (Diliz etxekoa), Bittori Landeta (GB) (Dilizandi baserrikoa).

IBAN GARATE > aktorea

“Gustuko nuke Hertzainak-en kontzertu batean berriz egotea”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Azkoitiarra eta gaztea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Oso gustukoa dut *La naranja mecanica* filma, baina ez dakit gai nintzatekeen paper hori egiteko, hori ere baloratu behar da.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Nik gogoz aukeratu dut nire lana, gustuko dudalako, ez nuke aldatuko nire lanbidea. Nahiko pena eta miseria dauka, gogoz arituko ez bagina...

Txikitan zer izan gura zenuen?

Kamioilaria.

Aitor dezakezun bizio bat?

Gominolak.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Yellowstonera bueltatuko nintzateke, AEBetan, eta Islandiara.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ingurukoei zerbait gertatzea, bakarrik geldituko nintzatekeelako.

Zein da zure ametssetako bat?

Hertzainak taldearen kontzertu batean egotea berriz ere.

Zer barik ezin zintezke bizi?

Arnastu barik.

Eguna ala gaua?

Eguna. Denen aurpegiak ikusten direlako, eta zarata eta ke gutxiago dagoelako bazterretan.

Parrandarik politenak non?

Norberaren herrian, herritarrek sortutako giroa dago, jende gehiena ezagutzen dut eta erosen sentitzen naiz, baina ez naiz oso parrandazalea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Zumaiako Itxurungo hondartza, denbora asko igaro dut han. ○

LABURREAN— *Goenkalen* hasi zen Iban Garate aktore (Azkoitia, 1982) eta maiz ikusi dugu ETB1en, hainbat tele-sailetan. *Aupa Etxebeste!* film ezaguneko protagonista izan zen, oraintsu estreinatu du *Mystikal* euskarazko pelikula fantastikoa eta *Arriya* pelikulan parte hartu du, oraindino ez dute estreinatu. Garatek ekonomia ikasi zuen Deustuko unibertsitatean eta duela urte eta erdi sortu zuen Tuntuxa ekoiztetxea beste lagun bigaz batera, Zumaiari. Produktore lana egiten du bertan, eta horrela, ekonomia eta interpretazioa uztar ditzake.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gozatu euskaraz

mobiletik euskaraz

Nor nahi goazela. Nonahi gaudela. Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi nahi dugunean, geure erara. Euskara gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure giroan, gure artean euskaraz.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Eskatu eta erosi euskaraz

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak, **GEHI EUSKARA MERKATARITZARA** egitasmoaren barruan, hainbat kanpaina jarri ditu martxan herriko dendetan ere euskararen erabilera sustatzeko, eta oraingoan, arropa-denden txanda heldu da.

Kanpaina honen bidez euskaraz berba egitea bultzatu gura dugu, bai dendarien eta gurasoen artean bai gurasoen eta seme-alaben artean. Horregatik, ebakigarriekin batera, informazio erabilgarria jasoko duzue (hiztegitxoa, elkarrizketa errazak, abesti bat...).

Material hau Gabonetan izango duzue eskuragarri herriko denda hauetan: kirol-dendetan, umeentzako arropa-dendetan, jostailu-dendetan, opari-dendetan, liburu-dendetan, etab.



Alkandora
Camisa



Mahuka laburreko
kamiseta
Camiseta de manga corta



Bainujantzia
Traje de baño



Jertsea
Jersey



Txanoa
Gorro




Pijama



Gona
Falda



Kamiseta
tiranteduna
Camiseta de tirantes



Oinetakoak
Zapatos



Praka bakeroak
Pantalones vaqueros



Mantala
Bata



Zira eta eskularruak
Impermeable y guantes



Prakak
Pantakón



Soinekoa
Vestido

INFORMAZIOA

Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei
Asesoría lingüística al comercio getxotarra
94 415 22 52 gehi@getxo.net

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera. Ayuntamiento de Getxo
94 466 00 10/11 euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net



Getxo
biel orain



Herriko Foru Alderdiak
Departamento Foral de Euzkara